

IPUIN KLASIKOEN BERTSIO BERRIAK.

TXANOGORRITXUREN KASUA.

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Gutiérrez Acarregui, Itsaso.

ZUZENDARIA: Etxaniz Erle, Xabier.



2017-2018

Laburpena: Esan genezake Txanogorritxu dela ipuin klasikoetatik adierazgarriena eta ezagunena. Aldaketa handia bizi izan du ipuin honek historian zehar: gorteko neskontzako izatetik, non biolentzia eta sexu-abusuak gailentzen ziren, haurrentzat zuzendutako ipuina izatera helduz, sexu-abusuak desagertu eta ehiztaria agertzen den momentuan. Nahiz eta autore eta ilustratzaile askorentzako ipuin klasiko honek esangura handia daukan sortze-prozesua aberasteko aukera ematen dietelako eta baita bertsio berriak egiteko ere, emakumea kasu askotan alde batera uzten dutela nabaritzen da. Baina sortu diren bertsio berri esanguratsuenetan Txanogorritxuren ipuinaren funtzioa aldatu egin da, baita ipuin honekin transmititu nahi dena ere eta honen oinarrian dugu feminismoak gaur egun duen garrantzia gure gizartean; txano gorridun ume honek duen papera aldatu egin da, baita otsoaren jarrera ere eta zer esanik ez amonaren jarrera edo amaren presentzia. Egin diren bertsio ugari hauetan umorea eta presentzia jostalaria dira nagusi, askotan ia subliminala izanik. Gradu Amaierako Lan honetan ikusiko da Perraultek egindako Txanogorritxuren bertsioak eta Grimm anaiek egindakoaren artean zelako aldaketak eman diren, zer zen garrantzitsua garai hartan eta zein zen ipuin honen funtzioa. Bertsio berrietan eman den aldaketa eta ekarpena kontuan izango da, garrantzia emanez lehen aipatu dudan horri, hots, emakumearen paperari. Azkenik, ikerketa lan osoan zehar eman diren emaitzak aztertu eta ondorioak aterako dira.

Hitz gakoak: Txanogorritxu, bertsioak, feminismoa

Resumen: Caperucita roja es considerado uno de los cuentos más significativos y populares del mundo. Se trata de una historia que ha sufrido cambios considerables a lo largo de la historia, ya que pasó de ser un cuento en el cual acontecían abusos sexuales y violencia a uno orientado hacia un público infantil sin abusos sexuales y con la adición del cazador que acude en ayuda de Caperucita. A pesar de que para varios autores esta obra tenga una gran importancia por la posibilidad tanto de mejora como de inspiración de nuevos cuentos que ofrece, la mujer ha sido situada en un puesto secundario en términos generales. Sin embargo, en las versiones más recientes el papel que Caperucita roja ha cambiado notablemente, así como el mensaje que transmite debido a la creciente importancia que el feminismo está adquiriendo; el papel de esta niña con capa roja, así como la actitud del lobo y, por supuesto, la actitud tanto de la madre como de la abuela de la misma. La actitud en las versiones más recientes es una en la cual impera el humor y el comportamiento juguetón o jocosos, considerado muchas veces casi como subliminal. En este trabajo de fin de grado se procederá a analizar los cambios acontecidos entre la versión de los hermanos Grimm y la versión de Perrault, así como que era lo que importaba y cuál era la función de la obra en la época

correspondiente a cada versión. Se tendrán en cuenta los cambios y aportaciones de la versión contemporánea dando importancia a lo mencionado anteriormente, es decir, al papel de la mujer en el cuento. Por último, se procederá a hacer un análisis y subsiguiente conclusión de lo expuesto.

Palabras clave: Caperucita Roja, feminismo, versiones.

Abstract: Little Red Ridding Hood is considered to be as one of the most significant and popular tales in the world. It has suffered a big amount of changes through it's history, going from a tale where there were sexual abuses and violence to one oriented to a young audience where there was no sexual abuse and where a hunter comes to the rescue of the child. Although a wide variety of artists have considered this story to be of a great importance due to the possibilities of improvement and creation of new content that it offers, womens role in the story has been generally relieved to a secondary one. Nevertheless, in more recent versions the main characters role has changed considerably, due to the increasing importance that feminism is getting in modern society; the Little Red Ridding Hood's child's role has been altered, the wolf's attitude and, of course, the main characters's mother's and grandmother's attitude. Most recent versions have been characterized by the humor and playful wittings, almost subliminal. In this thesis it will be analyzed the changes this story has suffered between Grimm brothers's tale and Perrault's modern version and, moreover, it will be explained what was the aim and what mattered the most in each historical context. Changes occurred in the most recent version will be considered and what is most important, the role that womens have in the story. Ultimately, an analysis and it's subsequent conclusion will be exposed

Key words: Little Red Ridding Hood, feminism, version

AURKIBIDEA

SARRERA	2
JUSTIFIKAZIOA: ZERGATIK TXANOGORRITXU?	3
LANAREN HELBURUA	6
MARKO TEORIKOA	7
HERRI IPUINAK	7
INTERTESTUALITATEA	8
MAITAGARRIEN IPUINAK	9
Ipuin klasikoei kritika	12
SEXISMOA MAITAGARRIEN IPUINETAN	14
Feminismoa eta politikaren eraldaketak	15
ALDAERAK ETA PSIKOANALISIA	17
METODOA.....	18
ZERGATIK TXANOGORRITXU?.....	18
TXANOGORRITXU OINARRI, LIBURU GARAIKIDE EZAGUNENAK	20
IPUINEN ANALISIA	20
SEÑORITA SALVESE QUIEN PUEDA – PHILIPPE CORENTIN:	22
LA NOCHE DE LA VISITA - BENOÎT JACQUES:.....	23
UNA CAPERUCITA ROJA – MARJOLAINE LERAY	23
TXANOGORRITXU ETA OTSO BELTXU - KUKUXUMUSU	24
OSABA OTSO – XOSÉ BALLESTEROS	25
ZERGATIK BIZI DA BASOAN TXANOGORRITXUREN AMONA? – ENKARNI GENUA.....	26
TXANO GORRI, BERDE, HORI, URDIN ETA ZURI – BRUNO MUNARI	27
UNA RICA MERIENDA – ROCÍO ANTÓN ETA LOLA NUÑEZ	27
TXANOGORRITXUREN ESKULARRUAK – INÉS ALMAGRO ETA MIKEL MARDONES.....	28
CAPERUCITA ROJA – ADOLFO SERRA.....	29
LO QUE NO VIO CAPERUCITA ROJA – MAR FERRERO	30
BOCA DE LOBO – FABIÁN NEGRÍN	31
BAZEN BITAN TXANOGORRITXU – PABLO MACIAS ALBA	32
EMAITZAK ETA ONDORIOAK	33
BIBLIOGRAFIA	36
ERANSKINAK	39

SARRERA

Ipuinak urteak pasa ahala aldatzen joaten dira. Tradizio orala zela eta, eta ahozko ipuinak ziren neurrian, bakoitzak bere erara kontatzen zituen, baita aldaketak eman ere horien artean entzulea erakartzeko, honen konplizitatea bilatzeko, honek ulertzeko moduko kontakizuna izan zedin. Istorioak kontatzeko dugun beharra barrutik sentitzen dugun desira horretatik dator zeinek sentimendu desberdinak sortzen dituen eta baita fenomeno naturalei azalpena bilatzeko balio duen, fantasiaren bidez, asmakeriaren bidez eta baita istorio liluragarrien bidez ere. Modu honetan literatura jaio zen, ahoz transmititu izan dena.

Haur literaturaren hasierako kontakizunetan edo hasierako idazleen artean hiru izen aipatu izan dira aspalditik: Charles Perrault, Hans Christian Andersen eta Grimm anaiak.

Eta idazle hauen eskutik jasotako Edurnezuri, Txanogorritxu, Erpurutxo, Errauskine... ipuinak belaunaldiak hazten ikusi dituztenak izan dira, mundu osoan zehar, argitalpen eta bertsio desberdinak egin direlako mendeetan zehar; asko ahozko bertsioak baina baita gero idatzizkora pasatu zirenean egindakoak ere.

Gaur egunean kokatzen garen testuingurua erabat desberdina da, lehen ipuinak sortu ziren testuinguru horrekin alderatzen badugu. Modu honetan, egokitzapen ugari egon dira eta berriak ere sortu, balore desberdinak helarazten dituzte, estereotipo eta mezu batzuk belaunaldiz belaunaldi igortzen ziren horiek kenduz, gure garaira hobeto moldatzen diren beste batzuk sortuz.

Honen ondorioz, GrAL honetan hitz egingo da ahozko ipuin horiei buruz, bere ezaugarri eta baloreei buruz, baita balore horien inguruan sortzen diren kritikei buruz; eta ipuin horiek nola sortarazi dituzten ipuin berriak -trantestualitatea erabiliz- gaur egungo haurrei moldatuak. Eta hori guztia ipuin klasiko batetik abiatuta ikusiko dugu.

Txanogorritxurekin ikusiko dugu lan honetan zehar guzti hori, ipuin hau izanik lan honetako protagonista, ikusiz oinarrizko bi istorioak zeintzuk diren eta hau oinarri hartuta zelako bertsioak egin diren gaur egun arte, baita bertsio berriek zer ekarpen egin duten.

JUSTIFIKAZIOA: ZERGATIK TXANOGORRITXU?

Gianni Rodarik honako esaten duen moduan bost hitz dira nahikoa -neskatoa, basoa, loreak, otsoa, amona- gure gizarteko edonori bururatzeko nori buruz ari garen hizketan: Txanogorritxu.

Eta, Angus Wilsonen bere *The World of Charles Dickens* liburuan (1970) aipatzen duen moduan, Charles Dickensek, berriz, esan diu “Caperucita Roja fue mi primer amor; sentía que si me hubiera casado con ella hubiera conocido la felicidad perfecta”.

Bost hitz esanda nahikoa da: neskatoa, amona, basoa, loreak eta otsoa. Momentuan datorkigu burura ipuin hori, Txanogorritxu. Honekin ipuinaren lehen jokoan barneratzen gara. Gaiari buruzko jakitunek azaltzen dute haur literaturako eta ahozko tradizioako ipuinen eboluzioa ikusteko Txanogorritxu besterik ez dugula behar.

Baina zergatik ipuin hau berriz? Tradizioaren beste liburu batzuekin egin genezake lan baina deigarriena Txanogorritxu da zein beste ipuin guztiak gailentzen dituen, bai haurrentzako literaturan eta baita ahozko narratibako erreperitorioan ere. Haur eta gazte literaturako entzuleak asko aldatzen dira urteak pasa ahala eta horrek aspaldi batean egindako ikerketa baldintzatzen du, beharrezkoa baitugu kontuan edukitzea zelako irakurketa egoerak eman diren ipuinaren entzuketetan. Tentsioz betetako ingurune batean murgiltzen gara parte-hartzaileen artean (umeak, gazteak eta helduak), non aldagaiak agertzen diren analizatzeko (instituzioak, merkatuak edo zentsura, besteak beste) zeintzuk produkzioa, zirkulazioa eta literaturan jabetzea baldintzatzen duten (Boland, 2006).

Lehen egindako galderari erantzunez Txanogorritxuren ipuinak ez du bakarrik balio haurrentzako literaturaren inguruan ikerketa sakon bat egiteko baizik eta irakurketarako ibilbidea egiteko proposamena eskaintzen du egile garaikideengana hurbiltzeaz gain (Boland, 2006).

Pisantyren esanetan (1995), Lehen Mundu Gudaren ostean hasten da benetan ipuin klasikoen berrinterpretatzen. Bertsio tradizionalak nagusiak dira, baina horren ondoan berridazketak, parodiak eta estilo-ariketak garatzen hasten dira, ipuin tradizionalak deskonposatzera orientatuak. Berrinterpretazio asko helduentzako dira, erreferentzia intertestualak eduki ditzaketanak eta baita eduki satirikoa ere. Lehendik berregindakoetan ipuinen hartzaileak umeak dira eta haurtzaroko irudi berria, islatzen dute, desberdina bertsio tradizionalekin alderatuz.

Orokorrean, bertsio berri hauetan, umorea da nagusi; hasieran helduentzako zen bakarrik, beranduago haurrentzako izan ziren.

Txanogorritxuren kasu partikularrean, Bigarren Mundu Gudatik aurrera benetako jarrera inflexio bat gertatzen da haurtzarorenganako eta baita Txanogorritxurenganako ere, eta beraz, haurrenganako. Pisanyk (1995) adibide bat adierazten du non protagonistak bere independentzia berreskuratzen duen eta otsoa garaitzea lortzen duen (C. Storr, 1955) edo neskatoa eta amona otsoa hiltzeko elkartzen dira salbatzen duen inongo gizonen esku-hartzerik behar gabe, Mersyside Fairy Story Collective-eko bertsiio feminista.

Charles Perraultek izan zuen ahozko tradizioko ipuin batzuk literarioki moldatzeko burutazioa gorteko jendearentzako dibertimendurako hain zuzen, Baina ipuin handien artean (Mari Errauskin, Bizar-urdin, Loti Ederra eta abar) Txanogorritxu sartu zen, beldurrezko elezaharra zena (alemanieraz Schreckmärchen), zeinen helburua zen neskatoak ez hurbiltzea ezezagunengana (Antonio Rodriguez Almodovar, 2001).

Perraultek berregindako testua (XVII.mendea) ahozko tradiziotik dator baina kontrol ideologiko eta moral batean ezartzen du, orduko gizarterako eta baita lan egiten zuen gortearantzako. Gogoratu behar dugu ipuin hau eta beste hainbat ez zirela haurrentzat eginiko ipuinak; haurtzaroaren ideia garai hartan ez da berdina urte batzuen ostean sortuko denarekin alderatuz (Boland, 2006).

Perraultek beraz hainbat aldaketa sartu zituen. Esaterako:

Ahozko tradizioan txano gorria falta da, amonak neskatoari eginikoa; txano gorri hau Perraultek gehitu zuen eta kontalariaren jarrera ezagutarazten digu. Kontalariak esaten digu interesa dagoela amonaren eta amaren aldetik neskatoa politagoa ikusteko dela txano gorri hori baina berori izango da otsoarengan interesa sortzen duena (otsoa=limurtzailea). Beste alde batetik, gorria kolorea erabiltzen da bekatua eta harrokeriarekin lotzeko (Boland, 2006).

Ahozko bertsiotan ez dago ia deskribapenik, pertsonaiak ia ez dira deskribatzen eta neskatoaren eta otsoaren topaketa adierazten dira bakarrik. Aldiz, Perraulten bertsiotan, kontalaria ez da neutrala eta mezu ohartarazlea esplizitu egiten du: "ez zekienez arriskutsua zela otsoari entzuten gelditzea berarekin hitz egiten gelditu zen ...". Liburu bilduma bat zegoen haurrentzako ohartarazpenean oinarriturik eta bertan sartzen zen Txanogorritxu. Honen funtzioa zen umeei gogoia kentzea ekintza zuhurtziagabeak egiteko, adibidez, basoa haien kabuz zeharkatzea. Hemen ulertu behar dugu otsoaren presentzia benetako arazo moduan eta ez metaforikoa (Boland, 2006).

Bai ahozko bertsiotan eta baita Perraulten bertsiotan ere otsoak Txanogorritxuri eskatzen dio arropak kentzea eta biluzik gelditzea. Hala ere, Perraultek ezaugarri

gutxiago kontaktzen ditu arropak kentzeari buruz baina erreferentzia sexuala ez du alde batera uzten; hau izan daiteke entzuleenganako eta irakurleenganako begirunea edo lotsa sentitzen zuelako. Gero, otsoaren eta Txanogorritxuren arteko elkarrizketa dator, aipatutako desberdintasunekin, eta amaieran Txanogorritxu hil egiten da otsoak jaten duelako. (Boland, 2006)

Grimm anaiak idatzitako Txanogorritxuren bertsioa Perraultek idatzitakoaren berridazketa bat da, 2. eranskinetan ikusi daitekeen moduan, existitzen baita 1790ean egindako lehen itzulpen bat. Bertsio berri honetan kanibalismo-eszenak alde batera uzten dira eta erreferentzia sexuala askoz hitz-erdikakoagoa agertzen da. Ipuina leundu egiten dute, Grimm anaiak (Perraultek bere obra egin eta 115 urte beranduago) amaiera zoriontsua gehitzen diote, orokorrean gehienok ezagutzen duguna, non ehiztariak neskatoa eta amona otsoaren tripatik ateratzen dituen. Batzuek esaten dute ehiztariaren irudia Alemanian sartu zutela, Frantzian bakarrik nobleek ehizatzen zutelako. Hala ere, beste xehetasun batzuk aipatzea komeni da, adibidez, amak Txanogorritxuri ematen dion gomendioa basoa ez gurutzatzeko edo otsoarekin topaketa (animaliak naturaz gozatzera gonbidatzen du). Gainera, Grimm anaiak amaieran dagoen irakaspena kendu eta ipuinaren erdian jartzen dute, horrela, beste amaiera bat jarritz non Txanogorritxuk beste otso batekin topo egiten duen. Baina aukera honetan, Txanogorritxuk jada badaki bere burua zaintzen eta amonarekin batera garaitzea lortzen dute. Grimm anaiak ipuina garaiko testuinguru kulturalera egokitzen dute; ohartarazpen-ipuinetatik urruntzen dira eta funtzio berria onartzen dute, klima pedagogiko berriarekin bat egiten duena. Ez dute umea beldurtu nahi, erakutsi nahi diote egoki portatuz gero, gurasoek esaten dieten moduan, ezer txarrik ez zaiela gertatuko (Boland, 2006).

Grimm anaien bertsioak Perraultena ordezkatu zuen eta haurren bilduma gehienek hartuko zuten, 1812tik Lehen Mundu Guda arte. XX. Mendea iritsi zenean bertsioak edukien moteltze berrira doaz. Nagusi den haurtzaroaren irudia fina eta hauskorra da eta haurren sentikortasun hori babestu behar da (Boland, 2006).

Ez dago amaiera zoriontsurik inon Grimm anaiak agertu ziren arte; orduan, ehiztariaren irudia beste ipuin batetik hartu zuten, Zazpi antxumeen ipuinetik hain zuzen eta Txanogorritxuren istorioaren amaieran ipini zuten. Kontua zen amona eta Txanogorritxu bizirik ateratzea, oso-osorik otsoaren tripatik, nahiz eta irentsiak izan (Rodriguez Almodovar, 2001).

LANAREN HELBURUA

Ez dira beharrezkoak printzipeak eta gizon, har eta mutil gazteak zoriontsu izateko, ez fantasian ezta mundu errealean ere. Gizon edo printzipe batekin batzean ipuinek erakutsi izan digutenez da haiei lotuta bizi behar garela munduari zentzua emateko, gainera gu, emakumeok, libre bizitzen utzi gabe. Edurnezurik edo Txanogorritxuk irakurri izan balituzte protagonista femeninoak zituzten ipuinak, bidaiatzen zutenak, arauak apurtzen zituztenak, konponbideak bilatzen zituztenak haien arazoak konpontzeko, benetan sentitzen zutena egiten zutenak...inoiz ez ziren zain egongo haiek nor salbatuko. Bakoitza bere tokian lagatzeko gai izango ziren, bai otsoa, bai ehiztaria. Mundua ezagutzen joango ziren, haien erabakiak hartzen ikasiko zuten eta, batez ere, erratzeko eskubidea izango zuten. Argi dago feminismoan hezteko beharrezkoa dugula gaur egun, pertsona aske, haien jabe eta errespetuzkoak sortzeko berdin izanik zein den sexua.

Gaur egungo umeez bai neska zein mutilek betidanik ezagutu izan ditugun istorioak entzunez gero balore oso kontserbadoreak jasoko dituzte; horrela, tradizioz ohitu egin gara eta ohitu egingo ditugu, gizonak salbatzaileen papera izanik eta emakumeak inozoak eta salbatu beharrekoak direla esaten badiegu behin eta berriz. Gero fantasiako munduan ikusi eta ikasitakoa mundu errealerara pasatzen dugu.

Ipuinetan agertzen diren estereotipoak aurre egitea da helburua, baita bortizkeriaren justifikazioari, maskulino eta femenino rolen obsesioari eta patriarkatuari. Hala ere, ipuin klasikoak irakurtzen jarraitu behar da baina zentzu kritikoa eta komuna erabiliz. Umeek eskubidea dute bertsio desberdinak entzun eta ikusteko, baita ipuinak haien artean alderatzeko ere.

Arrazoi guzti hauengatik istorio asko eta ugari ezagutu behar ditugu, esperientziak eduki eta bizi behar dira gero gu ere kritikoak izan gaitzen. Ana Maria Matute (2009) idazleak esaten zuen moduan ipuinak badoaz, baina aztarna uzten dute.

Ikusita gure haurtzaroko ipuinak zelakoak ziren, hau da, Edurnezuri, Mari Errauskin, Loti Ederra...printzesak ziren guztiak, denak irrealak, gure bizitzarekin alderaturik oso desberdinak. Estereotipoak behin eta berriz bultzatzen ziren eta inon ez zen agertzen istorio umoretsurik, denak oso serioak ziren nahiz eta amaiera zoriontsua izan, neskaren rola zein zen eta mutilak nolakoak izan behar zuten transmititzen zutenak. Txanogorritxu ere aurki genezakeen, neskato koldarra zen, ez zuen bere erabakirik hartzen eta basoan zehar norbaitekin hitz egitearen ondorioz gertatzen zena bere errua zen. Gaur egun gertaera onartezinak dira horiek. Horrela, guk ipuinetan ikusi

izan duguna ez errepikatzea espero da, baita umorez kontatzea istorio hauen bertsoak, estereotipo zakarrei aurre egitea, genero rola apurtzea eta emakumeen eta gizonezkoen artean behingoz berdintasun bat sortzea.

Beraz, ikerketa lan honetan ikusiko da Txanogorritxuren ipuin desberdinen azterketa eta baita egin diren bertso berrien azterketa ere, ikusirik bakoitzak zelako aldaketa eta ekarpenak egin dituen gaur egungo gizartean eta horren ondorioz, feminismoak ba al duen tarterik eta zer mezu bidaltzen zaien umeei ipuin hauen bitartez, hau da, ipuinen edukiaren garrantzia azpimarratuko da, marrazkiak alde batera utzi gabe.

MARKO TEORIKOA

HERRI IPUINAK

Ahozko ipuinak egile ezagunak ez daukaten antzinako kontakizunak dira, bere helburua gozatzea eta haztea izanik. Ipuinak bi bideetatik jaso ditugu; batetik, belaunaldiz belaunaldi iritsi zaizkigun ipuinak eta, bestetik, biltzaileei esker ditugun horiek. (Roldán, 2011).

Ahozko ipuin horiek idatzizkora pasatzeko unea XVI.mendean kokatu izan da; gainera, idazleentzako, margolarientzako, musikagileentzako eta zinemagileentzako inspirazioa izan zen hurrengo liburu hau, hala nola *El libro de las ninfas, los elfos, los pigmeos, las salamandras y los demás espíritus* Paracelsok idatzitakoa. Liburu honek magia eta zientzia konbinatzen ditu prozesu alkimikoak azaltzeko. Liburu honek Grimm anaiak inspiratu zituen (*Edurnezuri, Mari Errauskin...*) inpaktu zuzena izanik gaur egungo herriko kulturaren maitagarrien ipuinen imajinarioaren jatorria izan ahal izan zeneko fruituak naturaren magiarekin berriro birkonektatzen du (Forest, 2016).

Ipuinak prosan idatzitako kontakizun laburrak eta errazak dira, fikziozko gertakizunak osatuak, era zuzen eta argian adieraziak. Pertsonaia gutxi hartzen dute parte ipuinean zehar. Ahozko tradizioaren parte dira, gurasoengandik seme-alabengana igarotzen zen, bizitza bezain zaharrak dira eta ohitura zen belaunaldiz belaunaldi pasatzen joatea. Kontaketa mota hau umeentzat erakargarria da erraztasuna dutelako umeek ipuineko pertsonaiekin identifikatzeko. (Muñoz Guillén, 2017).

Ipuin hauek ahoz kontatzen zirenez ahozko komunikazioaren ezaugarriak dituzte; horrela kontalariak elementu ez berbalak erabiltzen ditu, hau da, gorputzaren mugimendua, ahotsaren kalitatea edo espazio sozialaren antolaketa (okupatzen duen

lekua, parte-hartzaileekin mantentzen duen distantzia etab.). Honek guztiak klimax jakin bat sortzen du eta baita entzulearekiko erlazioa ere. Keinuen eta hitzaren artean kokatzen diren beste elementu batzuk honako hauek dira: kalitatea, intentsitatea, ahots baten tinbrea, ahoz sortutako soinuak (arnas-hartzeak, txistuak, negarrak, korrokadak, aharrausiak...). Isiluneek ere garrantzi handia dute ipuinean zehar eta etenaldi itxurako isiluneak ematen direnean, etenaldi emozionalak sortzen dira, hau da, hitzek baino karga komunikatibo sendoagoa dute (Lluch, 2003).

Kontalariak aukeratzen du erritmoa eta aldaera dialektala, zeinek hainbat funtzio betetzen dituen, jarrera bat interpretatzea edo kontaleraren funtsezko zati batzuk memorizatzen laguntzea. Gainera, perpaus paraleloak erabiltzeko joera ematen da, hots, behin eta berriz izen batzuei laguntzen dieten adjektiboak erabiltzea, adibidez, soldadu ausarta edo printzesa ederra. Ahozko narrazioak dentsitate lexiko baxua dauka baina erredundantzia ugari (Lluch, 2003).

Bitxia da borroka fisiko eta berbalen agerpena ikustea, adibidez, Txanogorritxuren ipuinean borroka fisikoa ageri zaigu, otsoak aurre egiten dionean ehiztariari eta ehiztariak hau akabatu. Borroka berbalak agertzen direnean, aldiz, kontaketa barruan protagonistak atsotitzak eta igarkizunak igarri behar ditu proba gainditzeko eta, kontakizunetik at, kontalariak ekintza berdina planteatzen die entzuleei: proba linguistiko hauek borroka intelektuala sortzeko erabiltzen dira, kontalariak entzuleei hura gainditzeko proposatzen dien erronka izanik (Lluch, 2003).

Ahozko kontakizun horietan, eta hauetatik sortutakoetan ere, sarritan Antonio Mendoza Fillolak *Intertextos: Aspectos sobre la recepción del discurso artístico-n* (2003) esaten duten moduan, ohikoa da testu literario baten intertestuak agertzean, hau da, aipamen desberdinak agertzea eta baita beste literatura lan batzuei erreferentzia egiten dieten erreferentziak. Intertestu baliabideen eraginkortasuna ezagutzearen mendean dago beti, hots, egilearen nahitakotasuna eta testuaren helburua. Irakurle konpetentek azkar estimatzen dituzte diskurtso literario bateko erreferentziak, baita identifikatu ere. Garrantzitsua da jakitea autoreak duen intentzioa ez dela inoiz obra literario batean esanahia amaitzen; lan testuinguru desberdinetatik pasatzen denean, baita testuinguru kultural eta historikoetatik, esanahi berriak atera daitezke zeintzuk, agian, momentuko pertsonen eta autoreen ez zuten espero. Konexio intertestual berrietan barneratzen dira lanak, eta haien balorea eta esanahia argitu eta aberasten dira.

INTERTESTUALITATEA

Erlazio-fenomenoa da; hainbat era desberdinetan aurkezten da (transtestualitatea, hipertestualitatea, metatestualitatea eta artxitestualitatea). Intertestuaren fenomenoa

adierazpen kultural mota guztien artean hedatzen ari da, adierazpenaren eta kode artistikoen eta linguistikoen bitartez, komunikazioaren bidez.

Gerard Genettek (1962: 10-20) bost transtestualitate mota bereizi zituen:

- Intertestualitatea: testu baten (hipotestua) presentzia ahula beste testu batean (hipertestua).
- Paratestualitatea: testuaren eta bere paratestuen arteko erlazioa (izenburua, ilustrazioak...).
- Metatesualitatea: kritika literarioaren karakteristika.
- Artxistestualitatea: normalean genero mota batekin erlazionatuta dauden obrei erreferentzia egiten zaionean.
- Hipertestualitatea: hipotestu baten berridazketa.

Intertestualitatea eta hipertestualitatea oso ohikoak dira haur eta gazte literaturan. Hipotestuen ezagupena ez da beti posible obra literarioan ezta haur literaturan, izan ere haurren intertestu esperientzia bereziki akronologikoa da (Wilkie, 1999: 132-3) eta gertatu daitekeena da umeak aurretik hipertestua ezagutzea eta ez hipotestua edo ez jakitea azkenengo honen existentzia (Lluch, 1998: 144-149). Bestalde, parodia ere hipertestu mota bat da, eta hainbat aukera ematen ditu haur literaturan hipotestuak berregituratzeko (Diaz Armas, 2003).

MAITAGARRIEN IPUINAK

Maitagarrien ipuinak artelan literario txikiak dira, haien luzerarengatik, emozioen munduan sartzeko eginikoak, beste obra artistikoek egiten duten moduan. Ez dira bakarrik alderdi estetikoan edo entretenimendu hutsean geratzen, irakurlearen barneko munduan sartzeko helburua dute. (Muñoz Guillén, 2017)

Hasiera batean nahiago izaten da kontatzea irakurtzea baino, ipuinak kontatzen ditugunean kontalaria emozionalki murgiltzen baita bai ipuinaren edukiarekin eta baita umearekin ere; gainera, aukera ematen du keinuak egiteko, entonazioa lantzeko, hizkuntza ez berbala erabiltzeko eta era pertsonalean istorioa transmititzeko, gurea eginez. Bruno Bettelheimek *Psicoanlisis de los cuentos de hadas* (1976) idatzi zuen eta bertan maitagarrien ipuinak analizatzen ditu goitik behera, hau da, bai denbora eta baita espazioa kontuan izanik fantasia unibertsalak jasotzen ditu. Umearen imajinazioari dimentsio berriak eskaintzen zaizkio, zeinetara ezinezkoa izango litzaiokeen bere kabuz heltzea. Umeak ulerkuntza eta borrokatzeko gaitasuna lortzen ditu, berarentzat adierazgarrienak diren elementuak ordenatuz eta amets eginez. (Muñoz Guillén, 2017). Fantasia unibertsalak, kultura oso desberdinetan eta geografikoki ere oso desberdinetan ipuinaren edukiaren bertsio berdina aurkitzen ditugu baina izenburu desberdin batekin, hau da, arazo inkontziente berdina eramaten da aurrera nahiz eta ipuinak beste izen bat hartu; horixe gertatzen da lan honetan protagonista izango den ipuinarekin,

Txanogorritsurekin hain zuzen ere. Nahiz eta fantasiako ipuinak izan aspektu unibertsalak tratatzen dira, arazoak, gatazka psikologiakoak...eguneroko egoeren itxura hartzen dutenak.(Muñoz Guillén, 2017)

Haurren fantasiak, Maria Teresa Muñoz Guillenek (2017) dioen bezala, elementu guzti hauek hartzen ditu kontuan:

1. Beti ego gehienetan amaiera zoriontsua dauka.
2. Heroia edo umea identifikatuko den pertsonaia hori hasiera batean aparteko ezaugarririk gabe aurkezten da, ezerk ez du desberdin egiten. Edozein egoera arrarotan edo arriskutsutan aurkitzen du bere burua eta bere baliabideen bitartez konpontzen saiatu behar da.
3. Pertsonaiak irrealak dira kanpoko mundurako baina ez haur fantasian.
4. Fantasia, jostailu unibertsal, osoena eta dibertigarriena da.
5. Haurren ipuinak eta ametsak elkarlotuta doaz, inkonzienterako bidea direlako biak.
6. Laguntza psikologikoa ematen dute, arazoak konpontzeko bidea ematen dute.
7. Ipuina terapeutikoa da, hau da, pertsona bakoitzarengan barneko prozesuak ematen direlako.

Ipuinen ezaugarriei begiradaxo bat botatzen badiogu ikusi dezakegu esaldi laburrak eta argiak dituztela (umeez ulertzeko modukoak), deskribapen gutxi eta ekintza ugari agertzen zaizkigu denbora zehaztu gabe. Protagonistak proba batzuk gainditu behar ditu bere helburua lortu ahal izateko eta, azkenik, hasteko eta amaitzeko formulak behin eta berriz errepikatzen dira, hala nola “bazen behin...Hala bazan edo ez bazan”.

Bi ipuin mota desberdin aurkitzen ditugu: batetik, herriko ipuinak eta, bestetik, ipuin literarioak.

Herri ipuinaren ezaugarrietako bat da ahoz aho transmititzen dela, adibidez, gurasoengandik seme-alabengana eta, horren ondorioz, ipuin bakoitzaren inguruan bertsio desberdinak sortu izan dira. Bertsio ugaritan aurkezten da, egiturarekin bat egiten duena, baina xehetasunak aldatzen dira, hau da, egoera funtzionalak kontatzen dira eta batzuetan xehetasunak desberdin agertzen dira, baina esentzia mantentzen da. Gehienetan ez da autoreak ezagutzen (anonimoak dira) eta hiru azpitipo ditugu: maitagarrien ipuinak edo ipuin miresgarriak, animalien ipuinak eta ohituren ipuinak. Fabulak maitagarrien eta animalien ipuinen aldaera bat dira; horietan, animaliek hitz egin dezakete eta istorioaren eduki globalak bizitzeko ikasbidea transmititzen du, irakaspen bezala ezagutua. Elezaharrak eta mitoak kontakizun tradizionalak ere badira, baina ez dira fikzio moduan aurkezten baizik eta naturaren elementu batzuen jatorri moduan (2009).

Ipuin literarioak, aldiz, idatziz transmititutako ipuinak dira, kontu handiz egin eta aldatzeko modurik gabe. Idazle zehatz batek eginiko lana da, eta istorio bat egin edo

dagoeneko asmatuta dagoen istorio bat berregiten du eta horretarako bere testua planifikatzen du. Autorea ezaguna izaten da eta testua, lehen esan dudan moduan idatziz agertzen da, bertsio bakar batean ez herriko ipuinetan gertatzen den moduan, non bertsio ugari egon daitezkeen ipuin beretik aterata.

Beste genero narratiboetatik desberdintzen dituen ezaugarriak honako hauek dira idatzizko kontakizunetan:

1. Fikzioa dauka: nahiz eta ipuin batzuk bizitza errealeko egoerak hartu edo mundu errealeko lekuetan irudikatu, beti bere osagai nagusia fikziozkoa izan behar da, errealtatetik moztuz eta bananduz.
2. Lerro argumental bakarra dauka: istorioan zehar gertatzen diren jazoera guztiak segida bakarrean elkarlotzen dira.
3. Motza da: egitura sinplea dauka eta orrialde gutxitan garatzen da.
4. Pertsonai nagusia dauka: pertsonai ugari egon daitezke baina bakarrik bat da nagusia eta istorioaren fokua.
5. Efektu-unitatea da: ipuinak eginak daude hasieratik amaieraraino gelditu gabe irakurtzeko, autoreak aukeratutako erritmoa transmititu ahal izateko. Aldiz, desberdin gertatzen da nobelarekin, zatika irakurri daitekeelarik.
6. Sekuentzietan banatzen da: klimak eta pertsonaiak sortzen joateko beharrezkoa da zati edo sekuentzia deskribatzaile eta esplikatiboak sortzea.
7. Kontalari batek kontatzen du: figura hau oso garrantzitsua da; orokorrean kontalari orojakilera jotzen da, istorioari buruz dena ezagutzen duena, baita pertsonaiei buruz ere eta hirugarren pertsonan hitz egiten du. Ohikoa da baita kontalari protagonista, bere lekutik hitz egiten duena, lehenengo pertsonan. Beste aukera batzuk kontalari behatzailea da, kamara baten antzera jokatzeko duena, egoera konkretuaren alde batzuk bakarrik ikusten dituenak edo beste pertsonaia bat den kontalaria.
8. Tentsio narratiboa sortu behar du: desiragarria litzateke irakurtzen dagoen horrek liburu ez itxi ahal izana eta beste zerbait egitea. Ipuin onak irakurlea lehen momentutik harrapatu behar du eta zintzilik mantendu ipuinaren amaiera arte, mundu irreal horretan, irakurtzeari esker bere buruan sortu duen mundu horretan.
9. Ipuin mota desberdinak daude: gai askotarikoak izan daitezke ipuinak, fantastikoak, maitasunezkoak, izuzkoak...
10. Antologietan argitaratzen dira: antologiak pasartez osaturiko bildumak dira, autore berdinak idatzi ditu edo desberdin batzuek eta irizpide zehatz batekin aukeratzen dira, adibidez, gaia.

Ipuinen egitura aztertuz gero, hiru puntu garrantzitsu agertzen zaizkigu, orain arte ezagutzen ditugun ipuinetan gertatzen den moduan; hasiera (laburra eta argia, protagonista eta arazoa azaltzen da), korapiloa (ipuina ren zati nagusia, ekintzak) eta amaiera (ipuina ren irakaspena edo gakoa, normalean zoriontsua izaten da).

Ipuina ren ezaugarri hauek alde batera utziz, zertarako balio dute ipuinek benetan?

Maitagarrien ipuinak egokiak dira umeen ikaskuntzarako, baloreak ulertzeko eta gure gizarteko moralak ulertzeko, emozio propioak ulertzen hasteko eta baita inguruko enak ere (Solaz Velázquez, 2014); ipuin askok, enpatia lantzen dutenak, pertsonen garapenerako behar-beharrezkoak dira.

- Umeei laguntza ematen diete arazoak ebazteko: haien kabuz, istorioan barneraturik daudenean, haiek dira maitagarrien ipuinen protagonistak. Umeek pentsamendu kritikoa edukitzera laguntzen dute, baita ongia eta gaizkia desberdintzeko laguntza da ere, imajinazioa sustatzen dute, ausardiaren ordainsaria zein den jakingo dute eta zenbaterainoko pazientzia behar den arazoak ebazteko.
- Beldurrak gainditzen dituzte: maitagarrien ipuinek ez diete esaten umeei herensugeak existitzen direnik, umeek dagoeneko badakite konstantziarekin herensugea garaituko dutela, hots, herensugea haurraren beldurrak dira.
- Umeak zailtasunetara prestatzen dira: maitagarrien ipuinen bidez umeak gai izango dira erronkak aurkitzeko, azpijokoak bilatzeko, jeloskortasunak gainditzeko gai izango dira, baita traizioa eta bekaizkeria ere...hauei nola aurre egin ikasiko dute poztasunez betetako bizitza bat edukitzeko.

Ipuin klasikoei kritika

Haur-literaturaren sortzea lotu behar dugu momentuko modelo historiko-sozialarekin, hau da, umeen eskolaratzea hasten da eta horrekin loturik, burgesek sentitzen duten behar ideologikoa, hots, berezko espazioak sortzea, haurren mundua eta helduen mundua banatuak egotea. Aldiz, gizarte tradizional zaharretan eta Erdi Aroan haurraren sozializazioa helduarekin batera bizitzean sortzen zen. Errezagoa da ondorioztatzea umeentzat literatura espezifikoa sozializatzeko agente pribilegiatua izango litzatekeela, zeinek estereotipo sozialak bere rol sexual egokiekin berrestea beste helburu batzuen artean (Cantero Rosales, 2018).

Modu orokor batean bi haur literatura mota bereizi ditzakegu: batetik, haurrengan pentsatzen idazten den hori eta, bestetik, haurrek haiena egiten duten helduentzako literatura. Azkenengo honetan sartzen ditugu *Histoires ou contes du temps passé* (euskarazako bertsio ofiziala *Perraulten ipuinak izanik*) Charles Perraultena

(XVII.mendea), baita *Cuentos de la infancia y el hogar* (euskarazko bertsio ofizialean *Grimm anaien ipuinak* deitua) Grimm anaiena, *Robinson Crusoe...* (Cantero Rosales, 2018).

Vladimir Propp, folklorista errusiarra, zein bere interesa den ipuinen barruko egitura analizatzea pertsonaiek aurrera eramaten duten funtzioaren arabera, baieztatzen du mitoaren arrazionalizazioak direla; hots, mito horiek maskulinoak dira eta nahiz eta oinarrian dagoen gaia emakumea izan, mundu-ikuskerari patriarkalari dagokie (Cantero Rosales, 2018). Mitoa beti kontsideratu izan da istorio moral moduan, hau da, moralki jokatzeko irakasten dute. Azaldutako honek guztiak oinarrizkoa den zerbait adierazi nahi du: portaera modelo baten ikasketa, estereotipo maskulinoak buruan sartzeko eta baita femenino patriarkalak ere eta, azkenik, aitaren erreinuaren aurreko ordena sozialeko iraunkortasuna (Cantero Rosales, 2018).

Eredu argigarri bezala dugu Genaro Gomezen (1993) *Perraulten ipuinak*-eko Txanogorritxuren amaierako irakaspena. Adierazten den lehen gauza da emakumeak inozenteak direla (neska gazteak, txanogorritxu) Perraultek ipuin hau gorteko neska gazteentzat egin zuen eta amaierako ikaskizun horretan zera esaten die, kontu handiz ibiltzeko bi hankako otsoekin...gelaraino eramango dituztela.

Kontuan izan behar dugun beste adibide bat da ipuinetan behin eta berriz agertzen diren sinboloak. Hauek emakumearen inguruan dihardute: basoa, aztia, maitagarria eta sorgina; haiengan presente aurkitzen dugu irudi dual femeninoa. Irudi femeninoak bi kategoriatan banatuta daude, hots, onak (erreginak, printzesak eta maitagarriak) eta gaiztoak (sorginak eta amaordeak), azken hauek boterearekin lotuak.

B. Bettelheim (1977) adierazten du ipuinetan baloreen desberdintasun argia ematen dela -pasibotasuna eta aktibitatea hain zuzen-. Genero femeninoaren edertasunaren balioa berehalakoa da eta bere pasibotasuna, sentsibilitatea...berezkoak diren ezaugarriak zeintzuk izan ahal diren edo ez. Neskak, lan pertsonalaren, ahaleginaren bidez lor ditzaket baliorik ez dago; beraz, erronkak eta gairak ez dute lekurik. Aldiz, heroiaren autoerrealizazioak beharrezkoak ditu etapa batzuk, zeinetan honen esfortzuak eta akzioak eragina izango dute perfekzio pertsonala lortzeko, baita onarpen soziala eta heldutako nahiengatik autosatisfakzioa.

Aurkezten diren nondik-norakoak oso desberdinak dira neskatoentzat eta mutikoentzat, eta, honengatik, estereotipo sexuali indarra ematen zaien ipuinak dira. Diskriminatzaileak dira emakumearen ikuspegi negatiboa edo mendekoa adierazten dutelako, iradokiz rol mota hori guztiengan ematen dela: edertasuna, ontasuna,

pasibotasuna, ama izateko nahia, pribatuaren esferaren murriztapena... Normalean, errealitatean ematen diren estereotipoak dira, munduaren ikuspegia mugatuz.

SEXISMOA MAITAGARRIEN IPUINETAN

Berdintasuneko Ministerioak, Emakumearen institutuak eta FETE-UGT sindikatuak ipuin ez sexistak umeengana hurbiltzeko apustua egiten dute (Intxausti, 2010eko apirilaren 10a) haien esanetan haurren istorioak estereotipoz beteak egoten baitira. "Ia istorio guztiak emakumeak eta neskatoak egoera pasibo batean jartzen dituzte, non protagonistak gehienetan gizonezkoak diren eta jarduera eta ekintza desberdinak egin behar dituen emakumea salbatzeko" dio Luz Martinez Tenek, FETE-UGTko Gizarte Politikako zuzendariak. Hor aurkitzen ditugu Edurnezuri, Loti Ederra edo Mari Errauskin esandakoa frogatzeko. "Neskatoek panpinak gustuko izatea eta mutikoei kotxeak eta erizainak emakumeak izatea eta gizonezkoak mekanikariak, hezkuntzaren arabera da" (Intxausti, 2010eko apirilaren 10a).

Colomerrek (1999) ikuspegi sozio-historiko batetik adierazten du ipuinek garai jakin bateko pentsamoldearen isla irudikatzen dutela. Alde horretatik, Cerverak (1997) onartzen du Frantziako burgesek sozializatzeko literatura erabili zutela, zintzotasuna, arduratsua izatea, erantzukizuna eta aszetismoa hedatu zedin. Bettelheimen arabera aldiz, (2006) maitagarrien ipuin gehienak sortu ziren erlijioa bizitzarako funtsezko parte zen momentuan.

Horri dagokionez, Trigo, Aller, Garrote eta Marquezek (1997) komentatzen dute ipuina sorrera literarioa dela, ahoz eta idatziz bizipenak kontatzen dituenak, fantasia, esperientziak, ametsak eta gertaera errealak kontatzen dituenak, gaitasun sinbolikoa garatzera laguntzen du, eta beraz, hizkuntzaren garapenari, komunikazioari eta elkarrizketari zeinek aurkezpen-mekanismo ikasketari eta irudikapenari batera bide ematen dien. Bai neskatoei eta baita mutikoei ere egunero bizi duten errealitateak uler dezatela baimentzen dute ipuinek, haien sormena, amesteko gaitasuna eta mundu desberdinak asmatzeko ahalmena piztuz.

Genero narratibo bezala ipuinak garrantzi handia izan du pertsonengan garaietan zehar ezagueren inguruan, balioen inguruan sinismenetan eta sexu eta generoaren artean eman diren desberdintasunetan (López eta Encabo, 2008). Haurren eta gazteen liburuak arauen transmisiorako balioak eta ideología sexistetako agente eraginkorren artean agertzen dira (Michel, 1987). Turinen arabera (1995), liburu ilustratuek aparatu sinboliko moduko bat transmititzen dute umeak familiako eta gizarteko paper sexualak ikasi ditzaten, liburu ilustratuekin egindako ikerketa batean ikusten da, beste hainbat

konturen artean bai errealitateko pertsonak eta baita animaliak ere sukaldean bizi diren emakumeak islatzen dituztela eta amatasuna kontsolamendu goren gisa erakusten dutela.

Feminismoa eta politikaren eraldaketak

Feminismoak ipuinak beste modu batean kontatzea du helburu; hots, begirada kritikoa izatera heldu behar dira umeak, bai neskek zein mutilak, ez adoktrinatzeko, baizik eta gauden mende honetara egokitzea (XXI.mendera hain zuzen ere) eta beste errealitate batzuk erakustea (Pereda, 2018).

Ez da bizitza osoan ezagutu ditugun ipuin horiek suntsitzea, ezta pertsonaiak ere. Mendeak daramatzen ahozko tradizioa eta literarioa errespetatu behar dira, beste errealitate batzuk aurkeztuz eta estereotipoen kontra joanez, etxean debateak sortuz gurasoen eta seme-alaben artean, Cuatro Tuercas argitaletxeak esaten duen moduan (Pereda, 2018). Adibidez, Angela Vallveyk ere bere azken liburuan feminismoa jartzen du indarra. *Cuentos clásicos feministas* lanean, 11 ipuin klasiko berridazketa generoaren ikuspuntutik egiten du. Horrela, Txanogorritxu *Caperucita tall* bihurtzen da, non Txanogorritxu bideojokoetan banpiroak akabatzen dituen nerabea den eta basoan ez da otsoarekin aurkitzen baizik eta intentziodun gizon batekin, Ahatetxo itsusia *La patita fea es una chica especial* eta Mari Errauskine *Cenicienta y el reality show* besteak beste. “emakumea libre izatera heltzen da bere patuaren jabe denean. Feminismoari esker gurasoei, hezitzaileei eta baita neska eta mutilei ere erakusten zaie mundu hain gogor honetan bizirauten eta erakusten zein den emakumeen egoera non ez diren egoki tratatuak” (EFE, 2018).

Ipuinen helburua da umei bai neska eta mutilei jakintza mitikoak helaraztea, eta kontuan izanik noizkoak diren ipuin hauek ulertzekoa da eta normala zen garai haietan ezkondata egotea emakumearentzat salbu egotea zela, gizon batek salbatuko zuela, Vallveyk dioen moduan (EFE, 2018)

Octavio Vellónek adierazten duen moduan (2014) Alkibla argitaletxeak *Te Cuento* izeneko bere proiektu berria aurkeztu zuen 12 idazle garaikidek osatutako ipuin klasiko bertsioez osatua. Proiektu honetan istorioak gaur egun bizi dugun egoerarekin lotzen dira, non salaketa sozialak ugariak diren, besteak beste immigrazioa, genero indarkeria eta historiaren manipulazioa. Testuak Clemente Bernarden argazkiekin nahasten dira zeintzuek Espainian gaur egun ditugun arazoak islatzen dituzten.

Bai argazkiek eta baita kontakizunek ere jendeak bizi dituen zailtasunak adierazten dituzte. Liburu bakoitzean bi istorio desberdin daude; adibidez, *Caperucita Roja* liburuak, Patxi Irurzunek idatzia (Alkibla, 2014), Kaperuren istorioa kontatzen du, hots, umezurtza den, amagabea, genero indarkeriaren ondorioz, nerabe euskaldun baten istorioa. Aldi berean, bere mutil laguna izandakoak Otxoa izenekoak erasotu egiten du. Trama hau klima horretan garatzen da, iparraldean kokatzen den hiri-ingurune eta graffitiak dauden aldiri batean (Vellón, 2014).

Txanogorritxuren ipuinak bertsio asko izan ditu historian zehar baita interpretazio desberdinak ere eta hementxe ikus dezakegu zelako eraldaketak eman diren.

Horrela, Insula Zagaliak aipatzen duen moduan (2015) jarrera feministaren ikuspuntutik, bai Grimm anaien bertsioan eta baita Perraulten bertsioan ere Txanogorritxuren ipuina bortxaketa baten kronika balitz bezala irakurri nahi izan da, non biktima aurkezten den erruduna balitz moduan, otsoaren akuilatzailea izateagatik, amaren esandakoari uko egiten baitio eta basoan murgiltzen da, hots, sartzen debekatuta duen lekua, gizonezkoen gordelekua. Txanogorritxu da bere akatsengatik ordaindu behar duena tabua apurtzeko gai izan delako, bere amaren esana ez betetzeagatik. Otso irensele-bortxatzailea zuzena balitz bezala aurkezten da, ordena sozialaren zaharberritzailea. Edo, agian, bekataria balitz bezala, Txanogorritxu limurtzaileak hartan esnatu dituen sen baxuetako preso ahula izanik. Baina ez da gaizkiletzat hartzen. Horren ondorioz bertsio batzuetan amaiera ez hain dramatikoak ematen da, hots, ehiztari-epaileak isatsaren parean perdigoikada batez kaltetzen du hil ordeaz edo bere tripatik Txanogorritxu edo amona atera ordeaz (Zagalia, 2015).

Penelope Cruz aktoreari egindako elkarrizketa batean honek nabarmentzen du maitagarrien ipuinak garrantzitsuak direla umeentzat, gurasoengandik entzuten dituzten lehen istorioak baitira. Cruzek bere hurrei ipuinak irakurtzen dizkienean amaierak beti aldatzen ditu matxismo asko ikusten duelako istorio horietan, Edurnezurin, Lotti ederrean, Mari Errauskinen...eta beste guztietan; matxismo horrek umeengan eragina dauka eta haiek mundua ikusteko modua aldatzen dute ipuinen eraginez. Kontu handiz ez bagara ibiltzen pentsatzen hasten dira gizonezkoek dena erabakitzen dutela (Público, Europa Press, 2018ko otsailaren 20a).

Bestalde, *Little Revolutions*-ek argitaratu zuen 2018ko martxoaren 8aren bezperan aurrera daramaten proiektu baten bideoa, *Cambia El Cuento* izenekoak, non planteatzen den ipuina kontatzeko beste modu bat. Bideo horretan 22 neska-mutil agertzen dira momentu desberdinetan Txanogorritxuren antzerkia ikusten eta eskatzen zaienean parte hartzen.

Laburbilduz, Txanogorritxu haserretu egiten da eta otsoaz paso egiten du zeinek esaten dion kapa gorri bat jantzi duela berak begiratu zezan, baita esanez zer bide hartu behar duen...otsoak jan dezan. Txanogorritxuk ez du nahi otsoak bera jatea eta kito. Nahiz eta hasieran neska-mutilek ipuin tradizionala jarraitu eta otsoaren alde jarri neska txanodunak izaten duen haserrealdiak egoera birplanteatzera eramaten ditu (Público, Tremending, 2018ko apirilaren 29a). Momentu honetatik aurrera zentzua komuna erabiltzen hasten dira. Haientzat bistakoa da Txanogorritxuk jazarpena sufritzen duten emakumeak irudikatzen dituela eta, otsoak, aldiz, bera bakarrik eta talderik gabe hainbat eta hainbat erasotzaile.

Ipuinak horretan datza: nabarmentzea hasiera batean hain zuria eta kaltegabea den haurrentzako ipuin bat zelan egon daitekeen estereotipoez eta aurreiritziez betea.

Leticia Dolera bere *Morder la manzana* liburuan dioen bezala (2018) istorioek eratu egiten gaituzte, mendeetan egin duten bezala. Istorioen bidez esploratu dezakegu nortzuk garen gu eta baita nortzuk izatera heldu gaitzkeen. Kontaketa kulturalak mundua ikusteko dugun moduan eragina dauka, aldatu egiten du. Horregatik da hain garrantzitsua androzentrista izateari uztea, ulertzeko emakumeok ere kontaktaren erdigunea izan gaitzkeela eta mundua ez dela amaitzen hori horrela izanez gero. Gainera, batzuetan, salbatzera heldu gaitzke. Honek pelikulentzako, abestientzako, antzezlanentzako eta liburuentzako balio du (Dolera, 2018).

ALDAERAK ETA PSIKOANALISIA

Antonio Rodriguez Almodovarrek adierazten duen moduan (2001), beharrezkoa da adituen iritzia jakitea: psikologoa eta psikoanalistena, bi bereziki, Bruno Bettelheim eta Erick Fromm. Bi printzipioak kontuak izanik, bai eginbeharrarena (amona gizajoaren sorospean joatea) eta baita plazerrarena (basoan zehar loreak hartuz eta ezezagunekin hizketan ibiltzea). Bai bata eta bai bestea ere konklusio desberdinetara iristen dira. Lehenengoarentzat, Txanogorritxuk gaizki ebatzitako Edipo konplexuaren arazoa adierazten du, zein nerabezaroan agertzen den eta liluratua izateko aukerara eramaten duen. Otsoak, gizonaren irudia adierazten du, baita aitarena ere. Honentzako, txano gorriak eta amonari eramaten dion gantz-potoak lehen hilekoa eta birjinitatea irudikatzen dute. Beste alde batetik, inguruan dabilta sexu goiztiarreko arriskuak, ama eta amona ez dira errugabeak, neskatoari eskatzen diotenean beste bide hain arriskutsua hartzeko, egia esan desbideratzera eskatzen diote. Nahiz eta guk pentsatu Txanogorritxu inuzentea dela, hark ere biak begi bistatik kendu nahi ditu. Bettelheimek idazten du

(1977: 26): “solo los adultos, que están convencidos de que los cuentos son absurdos, pueden dejar de ver el inconsciente de Caperucita está haciendo horas extras para librarse de la abuela”.

METODOA

ZERGATIK TXANOGORRITXU?

National Geographic-eko kazetari-taldeak idazten duen moduan (2015) denok ezagutzen dugu Txanogorritxuren istorioa: Txanogorritxu bere amona bisitatzera doa eta iristean otsoarekin egiten du topo zeinek amona jan duen eta baita bere arropa jantzi ere, Txanogorritxu jateko intentzioarekin baita. Hala ere, aurrerantzean gertatzen dena bi bertsioen baitan geratzen da: otsoak lortzen al du berak nahi zuena? Ehiztari batek tripa irekitzen al dio Txanogorritxu salbatzeko? Txanogorritxuk lortzen al du otsoa engainatzea eta ihes egitea?.

Bruno Bettelheimen (1980: 9-10) argi azaltzen du:

Por mucho que nos sintiéramos más o menos desalentados, subestimados o tratados injustamente por lo adultos de nuestro próximo entorno, por mucho que temiéramos tener un comportamiento torpe o estúpido, estos cuentos de hadas nos brindaban la promesa de un día, a despecho de las apariencias, dejaríamos atrás, alejándolo de nosotros para siempre, aquel estadio de inferioridad (...) Estas esperanzas y otras por el estilo, ya fuesen reales o imaginarias, son las que, alimentadas por los cuentos de hadas, nos permitieron superar con entereza las adversidades.

Esan bezala, denok ezagutzen dugun ipuina da baina ezagutzen ditugun bi horietan bi amaiera desberdin aurkitzen dira; Perraulten ipuinean otsoa Txanogorritxuren zain egoten da ohean berarekin sar dadin eta harreman sexualak izan ditzaten, aldiz, Grimm anaien ipuinaren bertsioan ehiztaria iristen da otsoaren tripa ireki eta amona ateratzen du bertatik; otsoaren tripan harriak sartu eta hil zedin mugitu ezinik.

Baina ipuinen analisiarekin hasi aurretik Charles Perraulten Txanogorritxu eta baita Grimm Anaien Txanogorritxuren bertsioa analizatu eta errepasatuko dira taula honen bitartez. Taulan ikusten den moduan ipuineko pertsonaiak agertzen dira, bakoitzaren funtzioa zein den erakutsiz, baita irakaspenik ba al duen edo ez eta bien artean ematen diren desberdintasunak ikusten dira. Eranskinetan¹ aurkitzen dira bi ipuin hauek.

ALDAERAK	PERRAULT	GRIMM ANAIAK
<i>TXANOGORRITXU</i>	Biluztu eta otsoarekin batera ohean sartzen da, pentsatuz mozorrotutako otsoa amona dela.	Atea zabalik aurkitzen du eta otsoarekin hasten da hizketan.
<i>OTSOA</i>	Beste bide bat hartzea eskaintzen dio; beraz, txanogorritxu engainatuz, berak bide motza hartu eta neskatoak luzea hartzen du, ikusiz otsoa iritsiko dela arinago. Oheko parabola sexuala agertzen da txanogorritxu eta otsoaren artean.	Bere inguruari begirada bate matea eskatzen dio txanogorritxuri. Otsoak txanogorritxu engainatzen du eta esaten dio bere amonak oso gustuko izango lukeela bideko lore sorta bat. Parabola sexuala alegia familiar batean bihurtzen da.
<i>AMONA</i>	Herri batean bizi da, herriko lehen etxetxoan.	Basoan bizi da, txanogorritxuk zeharkatu behar duen bidearen amaieran.
<i>AMA</i>		Bidetik atera ez dadila eskatzen dio. Amaren irudia agertzen da.
<i>EHIZTARIA</i>	Ez da agertzen	Otsoak amona jan eta ehiztaria etortzen da txanogorritxu salbatzera eta otsoa hiltzera.
<i>AMAIERA</i>	Gaiztakeria da garaile	Ontasuna da garaile.
<i>IRAKASPENA</i>	Bertso-lerroetan idatzitako irakaspena, korteko neska gazteei zuzendua	Ez dago irakaspenik ezta ohartzarpenik ere

TXANOGORRITXU OINARRI, LIBURU GARAIKIDE EZAGUNENAK

Zati honetan Txanogorritxuren bertsoak eta berridazketak ikusiko ditugu, autore garaikideek eginikoak, zeintzuk irakurketa desberdinak sustatzen dituzten. Jatorriko herrialdearen arabera, ipuinaren berridazketa batzuk Perraulten ipuinaren antz gehiago dute eta beste batzuk Grimm Anaien ipuinaren antza (Boland, 2006).

Tony Ross autore ingelesaren bertsoan (Altea, 1982) Txanogorritxu aizkolari baten alaba da eta honek basoan zehar libre ibiltzen uzten dio. Bertso honetan egitura narratiboa ia ez da aldatzen; baina bai ikusi dezakegu ilustrazioen bidez ipuin klasikoa desdramatizatzeko eta zentzu mehatxagarria ezabatzeko erabiltzen direla. Ehiztariak otsoa zatikatu ordeztu erbestera egiten du. Erbestean dagoenean begetarianoa bihurtzen da eta ortua lantzen ikasten du. Txanogorritxuri ez zaio errurik botatzen ez desobedientziagatik ezta arinkeriagatik ere eta Perraulten amaierako irakaspena desagertzen da. Esan daiteke honen irakurketak mezu ekologikoa eta bakezalea duela. Colomerrek adierazten duen moduan (1999): “la ampliación de las fronteras de la permisividad y la adopción de nuevos valores no implica la anulación de límites a la adecuación moral en los cuentos infantiles, sino su simple transformación”.

Beste adibide bat dugu Bruno Munarrik eta Enrica Agostinellik egindako *Caperucita Roja, Verde, Amarilla, Azul y Blanca* (Anaya, 1998). Liburu hortan kolore bakoitza bertso desberdin bat da: Txano Berdea igelen laguna da eta otsoarengandik salbatzen dute; Txano Horia hirian bizi da eta konturatzen da kaleko bizitza basoa zeharkatzea bezain arriskutsua dela; Txano Urdina arrantzalea da eta arrain-otso baten kontra borrokatzen du; Txano Txuria misterio batean barnean bizi da, elu-mantu batek irakurleen begiradarentzako ikusezina egiten du. Deskonposizio-joko bat da eta aukeratutako gakoaren arabera ipuina berriz osatzea (Boland, 2006).

IPUINEN ANALISIA


Txanogorritxuren ipuin desberdinen analisia aurrera eramanez Gemma Lluch-ek (2013) proposatzen duen metodoa erabiliko dut, beharrezkoa baita analisi objektibo bat egitea irakurle kritikoagoa bat sortu dezagun, era objektiboan narrazio bateko ezaugarri literarioak eta paratestualak ebaluatzeko ahalmena izan dezan, iritzi subjektiboetatik at. Ipuin eta liburuaren analisi guztiak taulen bitartez egingo dira errezago ikus daitezkeen.

Lluchek (2013) honako analisi narratiboa proposatzen du:

- Egilearen, generoaren eta gaiaren edo fikziozko-unibertsoaren araberako kontaketa izan behar da.
- Kontaketaren egitura: nola egituratzen dira gertaerak? Kontakizuna zelan hasten da eta zelan amaitzen da?.
- Narratzailea. Nork kontatzen du istorioa? Narratzaile bakarra dago edo asko al dira? Zer motatakoa da? Zer funtzio du?.
- Pertsonaiak. Izenak, generoak, adinak edo talde sozialak identifikatzen du eta bereizi egiten du? Zeintzuk dira ezaugarri fisikoak eta psikologikoak? Zelan jokatzen du? Noiz, zelan eta norekin agertzen da istorioan zehar? Zer motatako pertsonaia da? Zer funtzio betetzen du istorioan?.
- Agertokia eta garaia. Zer garaitan eta zelako espazioan ematen dira gertakizunak? Zelan karakterizatzen dira? Zer ekintza gertatzen dira? Zer pertsonaiak hartzen dute parte momentu horretan?.
- Harreman intertestualak. Zer beste testurekin du harremana? Zer motatakoak dira harreman horiek? Zer seinale erabiltzen dira?.
- Estiloa. Zelako hizkera erabiltzen da? Zelakoak dira esaldiak, seinaleak, aditz-denborak...?

Jarraian, Txanogorritxuren bertsioei buruzko eta baita bertsio berriei buruzko analisia eramango dut aurrera, lehenago aipatu dudan Gemma Lluchek (2013) proposatutako analisi narratiboarekin. 13 liburu izango dira, ikusi izan ditudanetatik harrigarrienak eta portada eta izenburua ikusiz atentzio gehien deitu didatenak izan dira, euskeraz (6 liburu) zein gaztelaniaz (7 liburu), poesia, antzerkia eta narratibako liburuak izanik, bai haur hezkuntzako umeentzako eta baita lehen hezkuntzakoentzako ere. Lluchen analisia jarraitzeaz gain hiru puntu gehiago gehituko ditut, hain zuzen: zer mezu transmititzen duen ipuinak edo liburuak, ipuin bakoitzaren laburpen txiki bat, zer ekarpen edo aldaketa eman den liburu horrekin eta baita feminismoaren ikuspuntutik ekarpenik ba al dagoen. Marrazkien eta dauden koloreen analisi bat ere egingo da. 2. eranskinean aurkitu dezakezue ipuin zerrenda osoa.

SEÑORITA SALVESE QUIEN PUEDA – PHILIPPE
CORENTIN:



- **Generoa, gaia:** Fikzioa. Umorea. Narratiboa.
- **Egitura:** Hasiera, korapiloa eta amaiera dauka. Hasiera bazen behinekin hasten da (érase una vez...) eta amaiera beste ipuinengandik desberdina da (la historia ha terminado. Además es la última página. ¡Uf! ¡qué historia!).
- **Narratzailea:** 3.pertsona singularrean kontatzen da.
- **Pertsonaiak:** Señorita sálvese quien pueda: neska gaztea, nortasun handikoa ilegorria eta bihurria, istorioan zehar animaliak zirikatzen ditu, baita ama eta otsoa ere, amonari ihes egiten dio kasu handirik egin gabe. Ama: neskato honetaz gogaituta agertzen da orrialde bakar batean Otsoa: amonak basoan aurkitu du, elurretan, hotzez eta gosez hiltzen; neskatoak ohean aurkitzen du amonaren arropekin jantzita eta adarra jotzen dio. Amona: otsoaren alde agertzen da nahiz eta neskatoarekiko maitasun pittin bat adierazi. Basoko animaliak: beldurra diote neskato honi
- **Agertokia eta garaia:** garaia: bazen behinekin hasten denez ez du zehazten. Agertokia: bere etxea, basoa eta amonaren etxea.
- **Harreman intertestualak:** Txanogorritxu irudikatzen duela jakin dezakegu ile gorria daukalako, amak otarra ematen diolako amonaren etxera joateko. Otsoa eta amona ere agertzen dira, nahiz eta egoera desberdinetan izan.
- **Estiloa:** Hizkera informala eta kalekoa erabiltzen da, umorea erabiliz.
- **Ekarpina edo aldaketa:** Txanogorritxuri buelta ematen dion istorioa da. Neskato hau bihurria da, otsoa beldurtia eta amona otsoaren salbatzailea eta ama neskatoa etxetik botatzen duena gogaituta dagoelako.
- **Familia mota:** Ama eta amona dira bere familia.
- **Mezua eta emakumearen irudia:** Neska bihurriak ere badaudela ikusi dezakegu eta ez denak on-onak, istilurik egiten ez dutenak eta esanekoak.

LA NOCHE DE LA VISITA - BENOÎT JACQUES:

- **Generoa, gaia:** Poesia. Fikzioa, beldurra, umorea
- **Egitura:** Hasiara bat kokatzen du idazleak non amonaren eta lekuaren aurkezpena egiten den. Ondoren, korapiloa dugu non otsoa era desberdinetan agertzen den, originaltasuna erabiliz. Amaieran, otsoak amore ematen du eta Txanogorritxu agertzen da, lasaitasunaren eragilea.
- **Narratzailea:** Amona eta otsoaren arteko elkarriketa da beraz, lehen pertsonan da istorio osoa; bakarrik hasierako orrialdean egiten da deskribapen txiki bat amonari buruz.
- **Pertsonaiak:** Otsoa(k): basatia, disimulatzeko gaitasun handikoa, originala eta arima inuzenteak engainatzeko espialista. Amona: gorra da eta ez du ondo entzuten.
- **Agertokia eta garaia:** basoko amonaren etxea da agertoki nagusia; uda bateko gau batean kokatzen da.
- **Harreman intertestualak:** amona eta otso beldurgarria agertzen dira, baita amaieran ere Txanogorritxu bere otarrarekin.
- **Estiloa eta ilustrazioak:** oso kolore gutxi erabiltzen dira: marroia, beltza, gorria eta zuria. Gehienetan fondo beltza erabiltzen da letra zuriekin beldurra eman nahian. Hizkera kalekoa erabiltzen da eta poesia bat denez errima asko erabiltzen ditu. Otsoaren desesperazioa ikusi dezakegu tipografia handiagotzen denean eta otsoaren originaltasuna sinesgarria ez denean jada.
- **Ekarpena edo aldaketa:** Txanogorritxu ez da protagonista; amona eta otsoa diaaldi honetan istorioaren erdigunea. Estereotipoen apurketa ematen da.
- **Familia mota:** Amona bere etxe txikian bakarrik bizi da eta Txanogorritxu astero joaten da berari bisita egitera.
- **Mezua eta emakumearen irudia:** gaizkia beti egongo da nahiz eta beste zerbaitetaz mozorratua egon. Agertzen den emakume bakarra gorra irudikatzen dute baita inuzentea ere.



UNA CAPERUCITA ROJA – MARJOLAINE LERAY

- **Generoa, gaia:** Narratiboa, fikzioa, intriga, umorea
- **Egitura:** sinplea, lineala. Hasiara, korapiloa eta amaiera du nahiz eta testu gutxi izan.



- **Narratzailea:** elkarrizketa bat da momentu oro, otsoaren eta txanogorritxuren artekoa
- **Pertsonaiak:** Otsoa: oso argala, beltz beltza, begi eta hortz handiekin eta berez beldurra eman beharko luke. Txanogorritxu: neska txikitxo, ez zaio aurpegiarik ia ikusten baina bere txano gorriak atenzioa deitzen du.
- **Agertokia eta garaia:** Agertokia: fondo txuria da ipuin osoan zehar, bide bat irudikatuko balu bezala. Garaia: ez da aipatzen, baina gaur egungo gizartean kokatu dezakegu.
- **Harreman intertestualak:** otsoaren begi eta hortz handiak, txanogorritxuren kapa gorria; baita haien artean mantentzen duten elkarrizketa ere.
- **Estiloa eta ilustrazioak:** hizkera sinplea erabiltzen da, umoretsua, bai umeentzako zein helduentzako; otsoak esaten duena beltzez dago idatzia eta Txanogorritxuk diona gorritz. Ilustrazioek eta idatzitakoak bat egiten dute.
- **Ekarpena edo aldaketa:** betiko txanogorritxuren istorioan salbatua izan behar da bestelan galduta ikusten du bere burua, ez du gizonen beharrik, bere buruarekin nahiko du.
- **Familia mota:** Txanogorritxu agertzen da bakarrik, ez amarik ez amonarik.
- **Mezua eta emakumearen irudia:** nahiz era hasiera batean iruditu Txanogorritxu inuzentea dela amaieran otsoa baino argiagoa da; bera bere burua salbatzeko gai da eta ez du inoren laguntzarik behar.

TXANOGORRITXU ETA OTSO BELTXU - KUKUXUMUSU


- **Generoa, gaia:** Narratiboa. Fikzioa
- **Egitura:** Hasiera, korapiloa eta amaiera dauka
- **Narratzailea:** 3. pertsona singularrean idatzia, esaldi motzak, ume txikiek ulertzeko modukoak, esaldi bat edo bi orrialde bakoitzeko
- **Pertsonaiak:** Txanogorritxu: neskato ausarta, otsoari beldurrik ez diona, ezta ehiztariei ere. Ehiztariak: gizon gaiztoak dira eta bat izan beharrean bi idea. Otsoa: kikilduta agertzen da ipuinean Amona: berak agintzen du, ez da inoren beldur eta bera agertzen da garaile.
- **Agertokia eta garaia:** ezin da jakin garaia ez baitu esaten. Agertokia: basoa eta amonaren etxea.
- **Harreman intertestualak:** txanogorritxu, otsoa, ehiztariak eta amona agertzen dira, baita jatekoz betetako otarra ere.



- **Estiloa eta ilustrazioak.** Ilustrazioak: Koloretsuak, ausartak eta dibertigarriak Kukuxumusuk eginak, beraz, adierazgarriak. Estiloa: Hizkeria sinplea erabiltzen da istorio osoan zehar, baita umoretsua ere, erraza.
- **Ekarpena edo aldaketa**: amonak ere garrantzia hartzen du istorioan, hitz egiten du baita eta azken batean bera da agintzen duena, ez ehiztariak ezta otsoa ere.
- **Familia mota**: ama eta txanogorritxu dira bakarrik, beste etxe batean amona bizi da.
- **Mezua eta emakumearen irudia**: jendea ez da guk pentsatzen dugun modukoa, aurreiritziak alde batera utzi behar dira. Amona da azken batean agintzen duena.

OSABA OTSO – XOSÉ BALLESTEROS


- **Generoa, gaia**: Narratiboa, fikzioa, umorea
- **Egitura**: Hasiera, korapiloa eta amaiera dauka. Bazen behinekin hasi, korapiloan istorioaren mamia aurkitzen dugu eta amaieran irakaspenarekin bukatzen du non osaba otsok Karmele (Txanogorritxuren irudia dena) jaten du.
- **Narratzailea**: Hirugarren pertsona singularrean kontatzen da eta elkarrizketak lehen pertsonan.
- **Pertsonaiak**: Karmele: ume gozozalea da, lodia, ile gorriduna, eta pixkat gezurtia baita. Irakaslea: torradak eskaintzen dizkie umeei lanak ondo egiten badituzte. Ama: honen agerpena ez doa estereotipoen kontra, aldiz, bultzatu egiten dira berriz ere sukaldean agertzen baita uneoro umearentzako eta familiarentzako bazkaria prestatzen. Osaba Otso: hasiera batean ona ematen du baina ipuina aurrera joan ahala zerbait gaizki doala ikusten da.
- **Agertokia eta garaia**: Agertokia: eskolako gela, bere etxea, logela eta sukaldea, osabaren etxera joateko zeharkatu behar duen bidea eta osabaren etxea. Garaia ezin dezakegu jakin ez baitu aipatzen.
- **Harreman intertestualak**: Txanogorritxurekin lotura daukala ikusi daiteke. Karmelek txano gorri bat eraman beharrean ile gorria dauka eta osabarengana doanean otarra darama jatekoarekin. Amak bidaltzen du Karmele osabaren etxera (amonaren etxea izango zitekeena) eta Osaba Otso azken batean otso maltzurra da.
- **Estiloa**: Hizkera erraza erabiltzen du eta testuak eta ilustrazioak bat egiten dute.
- **Ekarpena edo aldaketa**: monstroei aurre egiteko balio digu ipuin honek, kasu honetan otsoari.
- **Familia mota**: Karmele amarekin bizi da baina haien osaba herri berdinean dute eta oinez joan daiteke bere etxerarte. Aita eta amona ez dira inondik agertzen.



- **Mezua eta emakumearen irudia:** Irakaspena du amaieran: ez dela gezurrik esan behar bestelan zigortua izango zara. Karmele ez da betiko umea bezalakoa, baizik eta potoloa eta litxarrerriak jatea gustatzen zaiona. Ama sukaldean irudikatzen dute, gizarte matxista honetan sukaldea baita emakumearen tokia.

ZERGATIK BIZI DA BASOAN TXANOGORRITXUREN AMONA? – ENKARNI GENUA

- **Generoa, gaia:** Antzerkia, fikzioa
- **Egitura:** genero dramatikoaren barnean sartzen dugu
- **Narratzailea:** kontalari ojokailea da oraingoan, ez da istorioaren parte den pertsonairen bat.
- **Pertsonaiak:** Xabi: mutil bat; Ama: Xabiren ama eta ipuina kontatzen diona; Txanogorritxo: ausarta, otsoarekin borrokatzen du; Otsoa: gezurtia betiko moduan, baina baita koldarra ere, Txanogorritxoren amona: azaldu egiten ditu bere sentimenduak eta basoan bizi dela bertan zoriontsu delako eta ehiztaria: otsoarekin borrokatzen du baina ez da hiltzera heltzen.
- **Agertokia eta garaia:** Xabiren mundo imaginarioan kokatzen da udazkeneko arratsalde euritsu batean.
- **Harreman intertestualak:** izenburuak berak gogoratzen digu zein ipuini buruz ari den, baita pertsonaiak txanogorritxu, ehiztaria, amona eta ama direlako.
- **Estiloa eta ilustrazioak:** hizkeria sinplea erabiltzen du eta ilustrazioak barregarriak eta esajeratuak dira.
- **Ekarpena edo aldaketa:** pertsona zaharrek sentitzen duten bakardadea azaltzen da. Bestalde, amonez gain aitonak ere aipatzen dira eta haiek ere atentzioa behar dutela. Bizitza errealera igarotzen da ipuina, umeek eta helduek kontuan izan dezaten zein garrantzitsua den gure ingurukoak zaintzea.
- **Familia mota:** Xabi eta bere ama dira ipuinaren protagonistak, Txanogorritxuren ipuina bi hauen osagarria da.
- **Mezua eta emakumearen irudia:** ipuin honetako protagonista, Xabi kasu honetan, arduratuta agertzen da ez baitaki Txanogorritxoren amaren izena, non bizi den aita, eta zergatik bizi den amona basoan, ea zoriontsu den edo ez. Inoiz ez zaigu esan galdera hauen erantzuna eta ez diogu garrantziarik eman. Gainera, Txanogorritxuk amonaren alde borrokatzen du eta ez da besoak gurutzaturik geratzen nork salbatuko zain.



TXANO GORRI, BERDE, HORI, URDIN ETA ZURI – BRUNO MUNARI



- **Generoa, gaia:** Narratiboa. Fikzioa, umorea
- **Egitura:** ez da ipuin bakar bat, bost ipuin dira ipuin bakarrean bilduta. Deskonposizio-jokoa da
- **Narratzailea:** kontalari orojakilea.
- **Pertsonaiak:** pertsonai bakoitza kolore batekin lotzen da, baita funtzio batekin ere: Txano Gorria: Grimm anaien istorioko Txanogorritxuren ipuina kontatzen da. Txano Berde: igelen laguna da eta otsoarengandik salbatzen dute, Txano Hori: hirian bizi da eta konturatzen da kaleko bizitza basoa zeharkatzea bezain arriskutsuagoa dela, Txano Urdin: arrantzalea da eta arrain-otso baten kontra borrokatzen du eta Txano Zuri: misterio batean barnean bizi da, elu-mantu batek irakurleen begiradarentzako ikusezina egiten du.
- **Agertokia eta garaia:** agertoki eta garai desberdinak daude Txano bakoitzaren arabera.
- **Harreman intertestualak:** beste lau pertsonaiek Txanogorritxuri egiten diote erreferentzia
- **Estiloa eta ilustrazioak:** hizkeria sinplea eta deskriptiboa erabiltzen eta aspaldiko marrazkiak dirudite.
- **Ekarpena edo aldaketa:** istorio berdin batetik izaera eta egoera oso desberdinak atera daitezke eta nahiz eta bertsio bat ezagutu horrek ez du esan nahi onena denik.
- **Familia mota:** amona, ama eta koloretako txano desberdinak.
- **Mezua eta emakumearen irudia:** emakume ausartak dira, haien beldurrei aurre egiten dietenak, bizitza errealeko emakumeok sentitzen ditugun beldurrak irudikatzen dira.

UNA RICA MERIENDA – ROCÍO ANTÓN ETA LOLA NUÑEZ



- **Generoa, gaia:** Narratiboa. Fikzioa, umorea, maitagarrien ipuina
- **Egitura:** errimekin egindako ipuina da; korapiloan gertatzen den ekintza bakarra behin eta berriz gertatzen da.
- **Narratzailea:** kontalari orojakilea da baina elkarrizketak gertatzen direnean
- **Pertsonaiak:** Txanogorritxu: bakarrik txanoa darama gorria, beste jantzi guztiak kaleko ume batenaren antzekoak dira. Otsoa: oihukatzen agertzen da lurrian, gehiegi jan duelako eta tripako mina duelako baina ez du nahi janari osasuntsurik jan. Untxia: azenarioa eskeintzen dio otsoari jateko, baina honek ez du nahi. Katua: sardinak eskeintzen dizkio otsoari, baina honi ere uko egiten dio. Usoa: ogia eskeintzen dio

otsoari baina ez du nahi. Sagua: gaztai zatitxo bate maten dio jateko, baina hau ere ez du nahi. Urtxintxa: gaztainak eskeintzen dizkio, baina ez ditu nahi. Azkenean, denek batera irabiatu bat prestatzen diote otsoari limoiz, sagarrez, marrubiez, laranjes, meloiz eta masustez, tripako minak kentzeko.

- **Agertokia eta garaia:** Basoan kokatzen da ostegun arratsalde batean.
- **Harreman intertestualak:** Umearen txano gorria, otsoa, umeak daraman jatekoz betetako otarra, basoa eta basoko animaliak.
- **Estiloa eta ilustrazioak:** errimaz osatutako testua, behin eta berriz gertatzen dena, testu sinplez eta hizkera errazez osatua, letra larriz idatzia.
Ekarpena edo aldaketa: zirrarak ezagutzeko eta haiek kudeatzen ikasteko da, jarrera eta ohitura positibo eta osasuntsuekin harremanetan jartzeko era bat da.
- **Familia mota:** umea amarekin bizi delaren itxura du baina ez da aipatzen.
- **Mezua eta emakumearen irudia:** neskatoak ume onarena egiten du, otsoarentzako hoberena nahi du eta behar izanez gero errieta botatzen dio, neska arduratsua da, inguruko animaliak moduan.

TXANOGORRITXUREN ESKULARRUAK – INÉS ALMAGRO ETA MIKEL MARDONES

- **Generoa, gaia:** Narratiboa, fikzioa, album ilustratua
- **Egitura:** Hasiera, korapiloa eta amaiera dauka, baina bira asko ematen diru, hots, ustez bide bat jarraituko du ipuinak baina beste bide bat hartzen du.
- **Narratzailea:** Txanogorritxuren bakarrizketa da baina kontalari orojakilea ere badugu.
- **Pertsonaiak:** Txanogorritxu: txano gorria, bota gorriak eta eskularru gorriak daramatzen neskatoa da, despistatua. Otsoa: animalia ona da oraingoan. Amona: maitagarria, pertsona ona, zaintzailea. Egurgilea.
- **Agertokia eta garaia:** elurtutako mendia eta amonaren etxea
- **Harreman intertestualak:** Txanogorritxu bera, basoan egiten duen bidea, etxean ahazten duen otarra amonari eramateko, otsoa ez agertzea bera beldurtzeko, eta amonak etxean atea ez irekitzea.
- **Estiloa eta ilustrazioak:** testua ilustrazioekin batera doa, onomatopeia asko agertzen dira eta mugimendua balute bezala ageri dira.
- **Ekarpena edo aldaketa:** elurra egiten du ipuinean eta Txanogorritxuk kontaktzen du, saskia ere ahaztu egiten zaio. Otsoaren beldurra badu baina ez da agertzen. Ipuinari



buelta ematen zaio, hain egiten du hotz handia non ipuina ezin den kontatu betiko moduan.

- **Familia mota:** Txanogorritxu amarekin bizi da baina amonarekin kontaktua dauka.
- **Mezua eta emakumearen irudia:** neskato normal baten irudia agertzen da ipuinean: gauzak ahazten zaizkio etxean, lurrera erortzen da, estali-estalia dago arropaz hotz handia egiten duelako eta ez soineku xume batez. Ipuina irakurtzean identifikatua sentitzeko aukera ematen du.

CAPERUCITA ROJA – ADOLFO SERRA

- **Generoa, gaia:** Fikzioa, beldurra. Narratiboa
- **Egitura:** Ipuin mutua da, ez dauka testurik. Neskatoaren (Txanogorritxu) eta otsoaren arteko eszena segida bat da sinbolikoagoa narratiboa baino nahiz eta aurrera egite bat dagoen istorioan zehar. Elipsia topatzen dugu: otsoarekin jolasten dabilen tximeleta gorria. Istorioa angelu desberdinetatik begiratzeko aukera ematen digu.
- **Narratzailea:** Narratzaile ugari izan daitezke, ipuina irakurtzeko hura izango baita. Narratzaileak nahi duena kontatu dezake ilustrazioak jarraitzen dituen bitartean.
- **Pertsonaiak:** Bi daude: otso bat eta neskato bat. Neskatoak umea dirudi eta txano gorri bat darama, lasaia baina otsoaren erruz ikaratua; funtzioa: edozein neska edo ume fidakor, jakin-mina eragiten duena eta baita. Otsoa beldurgarria da, beltz beltza, begi handi horiak eta hortz zorrotzekin; funtzioa: intentzio eskasak dituen gizonarena.
- **Agertokia eta garaia:** Guk aukeratzeko dugun garaia izan daiteke. Agertokia, berriz, basoa (ipuin honetan otsoaren gorputzak irudikatzen duena)
- **Harreman intertestualak:** Txanogorritxuren ipuinarekin lotzen dugu. Grimm anaienarekin: umearen txano gorria, basoa, amonaren etxea, otso beldurgarria, otsoak amona eta neskatoa jan izana.
- **Estiloa eta ilustrazioak:** Ez dago testurik, beraz, bakoitzak nahi duena hizkera mota erabili dezake, bai aditz-denborak eta esaldiak ere. Ilustrazioak: Oso kolore gutxi erabiltzen dira: fondo txuria, figura gorri eta beltzak eta horia otsoaren begientzako; beldurra ematen dute baina azkeneko orrietan baita lasaitasuna ere.
- **Ekarpena edo aldaketa:** kontziente izan behar gara bidean zehar topatu dezakegunarekin baina ez dago aldaketarik, zeren zerbait gertatzearen erruduna Txanogorritxu izaten jarraitzen da.
- **Familia mota:** Amonarekin eta aitarekin edo aitonarekin agertzen da amaieran, amarik ez.



- **Mezua eta emakumearen irudia:** Nahiz eta beldurra eman, aurrera jarraitu behar da beldurra emango ez balu bezala. Emakume bat da istorioaren erdigunea eta amaieran nahiz eta otsoak jan beste emakume baten babesa dauka, amonarena hain zuzen ere, ez da bakarrik geratzen.

LO QUE NO VIO CAPERUCITA ROJA – MAR FERRERO


- **Generoa, gaia:** Fikzioa, umorea. Narratiboa
- **Egitura:** Hasieran testuingurua kokatzen du irakurleak jakiteko nondik norakoak, dauden pertsonaiak azalduz, eta txanogorritxuren ikuspuntua dugu; korapiloan, otsoaren ikuspuntua eta basoko animalien ikuspuntua agertzen zaigu eta amaieran amonarena.
- **Narratzailea:** Lehen pertsonan kontatutako ipuina da; kasu honetan txanogorritxuk kontatzen du, baita otsoak, basoko animaliek eta amonak. Oso deskriptiboa da. Ikuspuntu desberdinetatik kontatutako istorioa da.
- **Pertsonaiak:** Txanogorritxu: 9 urteko neskatoa, gorria den guztia du gustuko eta amak Txanogorritxuri 8 urte zituenean egin zion txano gorria. Amonaren etxeko bidean ikusi, usaintzen eta sentitzen duen guztia deskribatzen du. Otsoa: trufak bilatzen agertzen da lehen irudian non adierazten duen gizakiak ez zaizkiola gustatzen eraso egiten baitiote. Txanogorritxorekin ez du ia hitz egiten eta Txanogorritxoren huts egite batean honen oterra otsoak hartzen du beretzat eta badoa. Otsoa ez da gaiztoa eta ez dauka intentzio txarrik, edo hori dirudi behintzat. Basoko animaliak: basoan bizi dira eta badakite otsoak oso gaiztoak direla. Plan bat egiten dute otsoak amona eta Txanogorritxu jan ez ditzan. Amona: otsoa bere ate aurrean ikusten du eta zauriez beteta dagoenez etxean sartzen du, baita bere arropak jantzi ere.
- **Agertokia eta garaia:** Garaia: Txanogorritxuk bederatzi urte zituenean kokatzen da. Agertokia: basoa eta amonaren etxea
- **Harreman intertestualak:** txano gorridun neskatoa, basoko bidea, otsoa, amonaren etxea eta amona.
- **Estiloa eta ilustrazioak:** hizkera umoretsua erabiltzen da testu osoan zehar, ustekabeko birak ematen dira liburu osoan zehar. Ilustrazioak adierazgarriak eta dibertigarriak dira, orrialdeak pasatzen joan heinean ez da espero agertuko dena.
- **Ekarpena edo aldaketa:** Istorioa errealagoa bihurtzen du baita umoretsuagoa ere. Umeei gustatzen zaizkien trikimailuak ikusi ditzakegu.
- **Familia mota:** Bere gurasoekin eta ahizparekin bizi da; amona ere leku berean bizi da baina beste etxe batean.



- **Mezua eta emakumearen irudia:** Ezin da bakarrik pertsona batek kontaktzen duena sinistu, bere ikuspuntutik ikusi baitu; beraz, istorio guztiak jakin behar dira ikusteko benetako istorioa zein den. Otsoa ez da gaiztoa, gaixorik dago eta gosea dauka besterik ez; eta txanogorritxu aldiz, ez da inuzentea, hots, ez du ondo ikusten eta betaurrekoak jantzi behar dizkiote. Hala ere, amona laguntzailea da eta besteei begira bizi dena, bizitza errealean gertatzen den moduan.

BOCA DE LOBO – FABIÁN NEGRÍN

- **Generoa, gaia:** Narratiboa, fikzioa, umorea.
- **Egitura:** Hasieran otsoak bere aurkezpena egiten du; korapiloa hasten da txanogorritxurekin topo egiten duenean; amaieran, otsoak berriz ere gosea dauka. Hau da, egitura zirkularra dauka.
- **Narratzailea:** Otsoak berak kontaktzen duen istorioa da, beraz, lehen pertsonan dago idatzia; txanogorritxuren ipuina bere ikuspuntutik kontaktzen du.
- **Pertsonaiak:** Otsoa: bera nor den kontaktzen hasten da, Adolfo izena duela, non bizi den eta zergatik pentsatzen duten besteek gaiztoa dela; Txanogorritxurekin hitz egiteko basoz mozorratzen da. Txanogorritxu: otarrean janaria eraman beharrean ispilu bat darama, amonari apurtu baitzitzaion. Umeak berez amona izan behar zena ikustean, beldurtu beharrean harrিতта geratzen da. Ehiztaria: otsoaren ustez bere salbatzailea.
- **Agertokia eta garaia:** Basoa eta amonaren etxea. Garaia ez da aipatzen.
- **Harreman intertestualak:** Adolfo, otsoa bera; otsoak deskribatzen duen gorritz jantzitako izaki arraroa, Txanogorritxu litzatekeena; amona, otsoak deskribatzen duenez zimurtutako izaki zahar eta itsusia; ehiztaria, otsoak deskribatzen duenez, beste ume bat baina oraingoan biboteduna, kapela metal hutseko bastoia zermana.
- **Estiloa eta ilustrazioak:** kolore oso gutxi erabiltzen dira: berdea, gorria, marroia, grisa eta zuria. Nahiz eta ilustrazioak adierazgarriak izan, testua irakurri daiteke hauei begiratu gabe eta edonola ere ulertu. Kaleko hizkeraren antzekoa erabiltzen da, umoretsua eta zuzena.
- **Ekarpena edo aldaketa:** gure buruari galderak egiteko aukera ematen du liburu honek, beste ikuspuntu batetik ikusita ipuina eta ipuin klasikoa den Txanogorritxutik esanahi berriak atera ditzakegu.
- **Familia mota:** Txanogorritxu eta amona dira bakarrik, amarik edo beste familiarik ez da aipatzen.



- **Mezua eta emakumearen irudia:** Txanogorritxuk eta amonak ez dute ia hitz egiten, beraz, ez dira leku onean geratzen.

BAZEN BITAN TXANOGORRITXU – PABLO MACIAS ALBA

- **Generoa, gaia:** Narratiboa, fikzioa, feminismoa oinarri, umorea.
- **Egitura:** Hasiera, korapiloa eta amaiera dauka
- **Narratzailea:** kontalari orojakile batek kontatzen du
- **Pertsonaiak:** Txanogorritxu: ez da ikaritzen eta bere erabakiak hartzeko gai da. Ama: sukaldean aritzea izugarri gustuko du eta herritar guztiakin zuen harremana. Amona: txantxazalea eta otsoaren laguna. Otsoa: nekatuta agertzen da jendeak ez diolako lo egiten uzten eta amonaren lagun mina da. Egurpilea: amonaren laguna eta barre egitea gustuko du.
- **Agertokia eta garaia:** Garaia ez da aipatzen baina gaur egungo gizartean kokatu dezakegu; agertokia aldiz, amonaren etxean kokatzen da, baita bere etxean eta basoan ere. Herria ere aipatzen da.
- **Harreman intertestualak:** ipuinean agertzen diren pertsonaiak eta ezagutzen dugun ipuinekoak berdinak dira, nahiz eta izaera eta agerpen desberdina eduki.
- **Estiloa eta ilustrazioak:** marrazki zoragarriak eta erabat harrapatzen zaituen istorioa da, deskribapen ugariz beteta dago. Fondo zuria du beti eta marrazkiak alboetan agertzen dira. Hizkera argi eta sinplea erabiltzen da, ez sexista.
- **Ekarpena edo aldaketa:** genero mandatuetatik eta rol sexistetatik urruntzen da. Ipuinarentzako bigarren aukera bat da, sexismo gabe, indarkeriarik gabe eta desberdintasunik gabe.
- **Familia mota:** Txanogorritxu, ama eta amona hirurak dira familia nahiz eta etxe desberdinetan bizi
- **Mezua eta emakumearen irudia:** ipuin bat kontatu daiteke pertsonai guztiei merezi duten garrantzia emanez eta ez bakarrik gizonezkoei. Txanogorritxu ez da otsoaren beldur, ez da hortz handiekin ikaritzen eta bere erabakiak hartzen ditu.



EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Lan guztia egin ondoren begi bistakoa da ipuinak nahiko aldatu direla, baina hala ere, ez gehiegi. Esan dudan moduan ikerketa guztian zehar, ipuin klasikoak ez dizkiegu haurrei kendu, betiko ipuin horiek ezagutzea beharrezkoa baitute. Baina ipuin hauek kontatzeko momentua heltzen denean begirada kritikoa eduki behar dugu bai ipuinekin eta baita umeei transmititu nahi diegunarekin ere; ipuinetatik ikasten duguna haurtzaroan nagusiagoak garenean egiteko ez dugu arazorik izango eta. Aldiz, transmititutako hura oraingo gizartera egokitzen bada, bizi dutena errealia eta ohikoa egingo zaie, arazorik gabe.

Historian zehar ipuinenetan eman diren desberdintasunak plazara ateratzen baditugu harrigarriak dira. Hasiera batean, haurrak heldu moduan tratatzen zirenean, Perraultek egindako ipuin horretan, Txanogorritxu gorteko neskentzako ipuina zen, mutilei aipatu ere egiten ez zitzaiena badaezpada, bortxatuak ez izateko abisatzeko. Momentu horietan, neskaren errua zen bortxatua izatea ezezagunekin hizketan geratzearren, berak momentu horretan nahi zuena egitearren.

Ondoren, Grimm anaiak iritsi ziren urte batzuk pasatu ostean. Garai hartan umeei garrantzia ematen hasi zitzairen eta Txanogorritxuren ipuin hau umeentzako egokitu zuten ehiztari salbatzailea sartuz amaieran. Hala ere, neskak ziren salbatu beharrekoak, hauek epaituz eta ez otsoa hasiera batetik abisatua edo zigortua.

Txikitatik bi ipuin bertsio hauek ezagutu ditugu gehienbat eta gaur egun arte ez zaigu batere arraroa egin kontatzen zigutena. Ondo al dago Txanogorritxu epaitzea? Ez al dute izenik Txanogorritxuren amak, Txanogorritxuk berak eta amonak? Berak nahi badu zergatik ez du ezezagunekin hitz egingo? Beldurtuta bizi behar al da kalera irtetetzen den bakoitzean? Ez al dira Txanogorritxu eta bere amona haien buruak defendatzeko gai? Beharrezkoa al da ehiztari hori?

Galdera hauen ostean, XXI.mendean argitaratutako ipuin eta liburueta iristen gara. Txanogorritxuk beste ipuin erabat desberdina dirudi baina bere esentzia galdu gabe, hau da, lau hitz esanda nahikoa dugula jakiteko zein ipuinetaz ari garen (amona, neskatoa, basoa eta otsoa) nahiz eta ipuinari bira oso bat eman. Gainera, argitaratutako ipuin askok ez dute Txanogorritxu inondik inora ere aipatzen izenburretan, beraz, hasiera batean, liburua hartzerakoan ez da espero barruan aurkituko dena.

Txanogorritxuren bertsio hauek aztertzeko erabili dudan fitxari esker ikusi ahal izan da emakumearen irudia non geratzen den ipuin bakoitzean eta horren inguruan zeri ematen dioten garrantzia, hots, emakumearen izaerari, emakumearen akzioei eta azken batean, honen agerpenari. Izaera dela eta, Perraulten ipuinarekin eta Grimm anaien ipuinarekin konparatuz, gaur egungo ipuinetan izaera gogordun neskatoa aurkitzen dugu ez ume makalik ezta koitadurik ere. Ondoren, ipuin hauetan guztietan emakumeak agertutako egoerak eta hauek egin behar izan dutenak adierazten du zelan emakumeak ez garen salbatuak izan behar, guk gure burua salbatu dezakegula arazorik gabe, ez dugu gizonen laguntzarik behar. Eta, azkenik, agerpena dela eta, ipuin askotan gertatzen da nahiz eta Txanogorritxuri buruzko ipuina izan, Txanogorritxu bera ez agertzea.

Emakumeak bihurtzen dira ipuinaren erdigunea kasu askotan, garrantzia handia ematen zaie feminismoaren korronteari esker, gizonezkoak eta harrak alde batera utzi gabe. Perraulten eta Grimm anaien ipuinetan agertzen ze biolentzia eta zakarkeria hura desagertu egin da guztiz; nahiko dute oraingo umeek telebistan ikusten eta entzuten duten basakeriarekin ipuinetan ere entzuteko legez.

Ikusi ahal izan da baita ere Txanogorritxuko ipuineko pertsonaiez gain (amona, ama, otsoa, Txanogorritxu bera eta ehiztaria) beste pertsonai asko ere agertu izan direla, adibidez: irakaslea, basoko animaliak hizketaldian sartzea, gizakiak...eta honek narratzailearen inguruan eragina daukala, hots, Perraulten kontalaria ez neutrala eta mezu ohartarazlea esplizitu egitetik lehen pertsonara pasatzea edo hirugarren pertsona orojakilerara igarotzea.

Aztertutako ipuinetatik adierazgarrienak honako hauek direla esango nuke: *Lo que no vio Caperucita Roja*, *Una rica merienda* eta *Bazen bitan Txanogorritxu*. Historia liburuetan bigarren mailan gelditzen diren emakume bizkor, borrokalari eta aitzindari ugari dago. Azken liburu honetan, *Bazen bitan Txanogorritxun* hain zuzen ere, omenaldi bat egiten zaio haietako bati: Maria Molinerri emakume izateak ukatu egin zion merezi zuen lekua. Gaur egun bere lana erreferentzia nagusia da eta bere iraunkortasuna eredugarria. *Lo que no vio Caperucita Rojan* ikusten da ipuin klasikoak inprobisatzeko balio dutela, burua galtzeko aukera ematen dute. Istorio honetan ez da Txanogorritxu klasikoa agertzen eta otsoak ere ez ditu berari betidanik egotzitako estereotipoak betetzen; amona ere ez da pentsatzen dugun bezain despistatua ezta inuzentea ere; basoko animaliak ere nahastuta dabilta eta zer esanik ez Txanogorritxu. Eta azkenik, *Una rica merienda* ipuinean umorea erabiltzeko gai da autorea; gainera, zirrarak

ezagutzeko eta haiek kudeatzen ikasteko balio du ipuin honek, baita jarrera eta ohitura positiboekin harremanetan jartzeko ere.

Agerikoa da Txanogorritxuren istorioa ipuin unibertsalean eta itxuraz maleziagabea, naturalizatutako sexu-erasoaren kasu nabaria dela eta horrekin betikotzen da modu jarraituan normalizatutako eta barneratutako gehiegikeria.

Beraz, ipuin garaikide hauekin egiten ari direna jarraitu behar dugu egiten. Txanogorritxu tolesgabe eta babesgabearen orde ahaldundutako neska azkarra bihurtu behar dugu. Kontaketak funtsezkoak dira gure identitatearen eraikuntzan. Libreak, zoriotsuak, gure patuaren inguruan erabakiak hartzeko gai izan gaitzkeela ulertuz hazten bagara, genero-berdintasunaren inguruko borrokan eremu handia izango dugu irabazia.

Txanogorritxuk ez du sinisten otsoak esandakoari, ez dio inori utziko bera ikaritzen eta ez du behar gizonezkorik, ehiztaririk, salbatua izateko.

BIBLIOGRAFIA

- Almagro, I., Mardones, M. (2012). *Txanogorritxoren eskularruak*. Tafalla: OQO Txalaparta.
- Antón, R., Núñez, L. (2002). *Una rica merienda*. Madrid: Grupo Anaya.
- Ballesteros, X. (2000). *Osaba Otso*. Pontevedra: Kalandraka.
- Bettelheim, B. (1980). *Los cuentos de Perrault*. Barcelona: Critica; pp-9-10.
- Bettelheim, B. (1999). *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Critica.
- Boland, E. (2006). *Algunas palabras bastan: ¡niña, abuela, bosque, flores, lobo y...Caperucita por siempre!* Buenos Aires: Imaginaria N.177 martxoaren 29an.
- Cantero Rosales, M^o A. (2018). *Una crítica a los cuentos tradicionales desde una visión coeducativa*. Granada: Seminario de coeducación de MCEP. Berreskuratuta 2018ko apirilaren 3an: http://www.quadernsdigitals.net/datos_web/articles/kikiriki/k25/critica.htm
- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madrid: Síntesis Argitaletxea
- Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madrid: Editorial Síntesis.
- Corentin, P. (1998). *Señorita sálvese quién pueda*. París: Editorial Corimbo.
- Dolera, L. (2018). *Morder la manzana: la revolución será feminista o no será*. Barcelona: Editorial Planeta.
- Enciclopedia de Características (2017). *Cuento*. Berreskuratuta: 2018ko maiatzaren 21ean: <https://www.caracteristicas.co/cuento/>
- Ferrero, M. (2013). *Lo que no vio Caperucita Roja*. Zaragoza: Edelvives
- Forest, W. (2016). *El origen de los cuentos de hadas*. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 30ean: <https://www.youtube.com/watch?v=1C8maGeG0N0&t=1s>
- García Villanueva, J., Hernández Ramírez C. I. (2016). *¿Realidad o fantasía? Roles y estereotipos sexistas expuestos a través de representaciones discursivas e iconográficas en cuentos infantiles*. México. Revista Integra Educativa. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 21ean:

http://www.scielo.org.bo/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1997-40432016000100006

Gaudes, B., Macias, P. (2013). *Bazen bitan Txanogorritxu*. Editorial Cuatro Tuercas.

Genette, G. (1962). *Palimpsestos. La literatura en segundo grado*. Madril: Taurus.

Genua, E. (2006). *Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?* Donostia: Erein.

Intxausti, A. (2010). *El cuento de las hadas y los hados*. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 30ean: https://elpais.com/diario/2010/04/10/sociedad/1270850401_850215.html

Jacques, B. (2010). *La noche de la visita*. Frantzia: A buen paso

Kukuxumusu (2005). *Txanogorritxu eta otso beltzu*. Tartalo Argitaletxea S.L.

Leray, M. (2009). *Una caperucita roja*. Bartzelona: Oceano Travesía

Lluch, G. (2003). *Análisis de narrativas infantiles y juveniles*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

Lluch, G. (2013). *Como analizar relatos*. Gijón. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 21ean: <http://www.gemmalluch.com/esp/como-analizar-relatos/>

Lopez Valero, A., eta Encabo Fernandez, E. (2008). *Lenguaje, cultura y discriminación. La equidad comunicativa entre géneros*. Bartzelona: Ediciones Octaedro.

Mendoza, A., Cerrillo, C. (2003). *Intertextos: Aspectos sobre la recepción del discurso artístico*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.

Munari, B., Agostinelly, E., (1998). *Txano Gorri, Berde, Hori, Urdin eta Zuri*. Madril: Anaya Haritza.

Muñoz Guillén, M. T. (2017). *¿Para qué sirven los cuentos de hadas?*. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 30ean: <https://www.youtube.com/watch?v=Os8A8jX3dFI&t=1655s>

National Geographic (2015). *¿De dónde vienes Caperucita Roja? Conoce sus orígenes*. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 21ean: <http://www.nationalgeographic.es/historia/de-donde-vienes-caperucita-roja-conoce-sus-origenes>

Negrín, F. (2005). *Boca de lobo*. Bartzelona: Thule.

Público. Europa Press (2018). *Penelope Cruz critica el machismo en los cuentos infantiles: “Que le jodan a Cenicienta y a la Bella Durmiente”*. Berreskuratuta 2018ko

maiatzaren 21ean: <http://www.publico.es/sociedad/penelope-cruz-machismo-cuentos-infantiles-jodan-cenicienta.html>

Rodari, G. (1984). *Gramatica de la fantasia. Introduccion al arte de inventar historias*. Bartzelona: Argos Vergara Argitaletxea

Rodriguez Almodovar, A. (2001). *Caperucita, el más enigmático de los cuentos*. Miami: Cuatrogatos N.3.

Tremending (2018). *El otro cuento de Caperucita: cuando al lobo se le dice "no es no"*. Público. Display Connectors S.L. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 20an: <http://www.publico.es/tremending/2018/04/29/machismo-el-otro-cuento-de-caperucita-cuando-al-lobo-se-le-dice-no-es-no/>

Turín, A. (1995). *Los cuentos siguen contando*. Madril: Horas y Horas.

Vallvey, A. (2018). *Angela Vallvey feminiza los cuentos clásicos con heroínas de cuidado*. EFE: Madril. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 21ean: <https://www.efe.com/efe/espana/cultura/angela-vallvey-feminiza-los-cuentos-clasicos-con-heroinas-de-cuidado/10005-3570039>

Vellón, O. (2014). *Caperucita grafitera y otros cuentos revisados*. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 21ean: https://www.eldiario.es/cultura/Cuentos-conciencia_0_334216784.html

Wilson, A. (1970). *The world of Charles Dickens*. Britania Handia: The Viking Press.

Zagalia, I. (2015). *Caperucita y el feminismo*. Berreskuratuta 2018ko maiatzaren 21ean: <http://insulazagalia.blogspot.com.es/2015/11/caperucita-y-el-feminismo.html>

ERANSKINAK

➤ 1. ERANSKINA: Charles Perraulten Txanogorritxuren ipuina:

Bazen behin, txano gorritxo bat zeraman neskato eder bat, hain ongi ematen zion txapelak, leku guztietan Txanogorritxo deitzen zioten. Egun batean, amona gaixorik zegoenez, amak opiltxoak eta gurin-ontzitxo bat eramateko eskatu zion. Txanogorritxo berehala abiatu zen amonaren etxe aldera, baina basoan barrena zihoala, otso batekin topo egin zuen. Otsoak neskatoa jateko gogoaz bazuen ere, ez zen ausartu inguruan aizkolari batzuk zeudelako, eta ondorioz, nora zihoan galdetu zion. Txanogorritxok, ez zekienez arriskutsua zela otsoari entzuten gelditzea berarekin hitz egiten gelditu zen. Orduan, amonaren etxera zihoala eta etxea non zegoen esatean, otsoak bera beste bide batetik joango zela erantzun zion. Beraz, otsoa bide laburrenetik ziztu bizian joan zen bitartean, Txanogorritxo, hurrak biltzen eta tximeletei segika, lasai biderik luzeenetik joan zen.

Otsoa berehala iritsi zen amonaren etxera eta atea jotzean, Txanogorritxo, bere biloba, zela eta amak emandako opiltxoak eta gurin-ontzitxoak zekarrela esan zionez, amonak, atea nola ireki esan zion. Otsoak, atea zabaldu zuenean, amona gaixoaren gainera salto egin eta irentsi egin zuen. Berehala atea itxi, amonaren arropak jantzi eta ohean sartu zen Txanogorritxoren zain.

Txanogorritxo iritsi zenean, atea jo eta otsoaren ahots sendoa entzun zuenean, ikaratu egin zen, baina, gaixorik zegoela pentsatu zuenez, atea ireki eta barrura sartu zen. Opiltxoak eta gurin-ontzitxoak mahai gainean utzi eta berarekin ohean sartzeko esan zion. Txanogorritxo erantzi eta ohean sartzean, harriturik gelditu zen. Orduan honela mintzatu zitzaion:

- Amona, nolako beso handiak daukazun!
- Heu hobeto besarkatzeko, laztana.
- Amona, nolako hanka handiak daukazun!
- Arinago ibiltzeko, laztana.
- Amona, nolako belarri handiak daukazun!

- Hobeto entzuteko, laztana.
- Amona nolako hagin handiak dauzkazun!
- Heu jateko.

Eta hitz hauekin batera, otso gaiztoak Txanogorritxo jan zuen

IKASKIZUNA:

Ikusten da hemen, neska-mutilak

edozeini kasu eginda dabilzala oker

batez ere neskatila eder, atsegin eta segailak

Ez zaitezte, beraz, harritu

otsoak hainbeste jaten baditu.

Otsoa, diot, ez dira-eta otso guztiak ezpal beretik sortuak;

aldarte onekoak ere ba omen dira

zarata, haserre eta gorroto gabeak

neskatilen atzetik dabilza jira eta bira;

jator, adeitsu eta goxo etxeraino iritsi,

gelaraino ere temoso.

Baina, ai ene!

Nork ez daki otso elezuriak direla guztiz arriskugarriak

➤ **Grimm anaiek egindako Txanogorritxuren bertsoa:**

Bazen behin neskatila bat ikuste hutsarekin jende guztiak maite zuena. Gehiena maite zuena bere amona zen, denetik ematen zion. Behin txano bat oparitu zion, tertziopelo gorritz egina. Hain ongi geratzen zitzaionez, beti hura jantzita ibiltzen zen eta horrela hasi

zitzaien Txanogorritxo deitzen. Egun batean amak opil zati bat eta botila bere ardo eman zizkion amonari eramateko, gaixo baitzegoen. Zuzen joateko eta bidetik ez aldentzeko esan zion amak. Basoan zihoala otsoarekin topo egin zuen eta gaiztoa zela ez zekienez, ez zion beldurrik. Nora eta zertara zihoan galdetu zion otsoak eta Txanogorritxok dena erantzun zion. Orduan otsoak ideia bat izan zuen. Txanogorritxori loreak biltzeko eta txorien kantuez gozatzeko esan zion eta bitartean bera amonaren etxera joan zen zuzenean.

Amonaren etxera iritsi eta atea jo zuen. Amonak ahul dagoela eta krisketari sakatuz barrura sartzeko esan zion. Otsoak ezer esan gabe bere ohera sartu eta jan egin zuen. Ondoren, bere arropa jantzi eta ohean sartu zen. Berehala heldu zen txanogorritxo eta segituan zerbait arraroa sumatu zuen amonaren etxean. Bere ohera hurbildu eta galderak egiten hasi zitzaion, azkenik otsoak bera jan zuen arte.

Otsoak tripa betea zuela, ohean etzan zen berriro ere, lokartu eta zurrungaka hasi zen. Etxe ondotik igarotzen zen ehiztariak zurrungak entzun eta amonari zerbait gertatzen zitzaiolakoan barrura sartu zen laguntzeko asmoz. Ohean otsoa ikusi eta berehala eskopetarekin tiro egitea pentsatu zuen, baina agian amona irentsiko zuela pentsatu eta artaziekin tripa irekitzea hobe izango zela pentsatu zuen. Tripa ireki eta segituan atera ziren Txanogorritxo eta amona, biak bizirik. Ondoren otsoaren tripa harriz bete zuten eta esnatu zenean, ihes egin nahi izan zuen, baina harriak oso astunak ziren eta berehala lurrera erori eta hil egin zen. Hirurak pozik geratu ziren; ehiztariak otsoaren larrua hartu zuen, amonak Txanogorritxok ekarritako opila jan eta ardoa edan zuen, eta Txanogorritxok bere artean pentsatu zuen: ez naun bizi artean behin ere gehiago bidetik kanpo ibiliko, amak galaraziz gero.

Beste egun batean, berriro ere basoan zihoala, otsoarekin topo egin zuen Txanogorritxok. Baina oraingoan bere bidetik zuzen jarraitu zuen amonaren etxeraino. Biak etxea zeudela, otsoa joan zen ate joka, baina ez zioten ireki. Azkenik, otsoa teilatura igo zen gero Txanogorritxo jateko asmoarekin. Baina amonak argi ikusi zituen bere asmoak, eta Txanogorritxori lan bat jarri zion.

-Har ezazu pertz bat, atzo lukainkak egosi nituen; eramanez ezazu etxe aurreko askara lukainkak egosteko erabilitako ura.

Aska urez bete ostean, otsoak lukainka usaina usaindu eta teilatutik lepoa luzatuta behera begira egon zen une batez, azkenik irristatu eta askara erori eta ito zen arte. Txanogorritxo pozik itzuli zen etxera, inork kalterik egin ez ziolako

➤ **2. ERANSKINA: Ipuin zerrenda:**

Almagro, I., Mardones, M. (2012). *Txanogorritxoren eskularruak*. Tafalla: OQO Txalaparta

Antón, R., Núñez, L. (2002). *Una rica merienda*. Madrid: Grupo Anaya

Ballesteros, X. (2000). *Osaba Otso*. Pontevedra: Kalandraka

Corentin, P. (1998). *Señorita sálvese quién pueda*. París: Editorial Corimbo

Ferrero, M. (2013). *Lo que no vio Caperucita Roja*. Zaragoza: Edelvives

Gaudes, B., Macias, P. (2013). *Bazen bitan Txanogorritxu*. Editorial Cuatro Tuercas

Genua, E. (2006). *Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?* Donostia: Erein

Jacques, B. (2010). *La noche de la visita*. Frantzia: A buen paso

Kukuxumusu (2005). *Txanogorritxu eta otso beltzu*. Tarttalo Argitaletxea S.L.

Leray, M. (2009). *Una caperucita roja*. Bartzelona: Oceano Travesía

Munari, B., Agostinelly, E., (1998). *Txano Gorri, Berde, Hori, Urdin eta Zuri*. Madrid: Anaya Haritza.

Negrín, F. (2005). *Boca de lobo*. Bartzelona: Thule

Serra, A. (2011). *Una caperucita roja*. Madril: Narval.